

eman ta zabal zazu



Universidad del País Vasco    Euskal Herriko Unibertsitatea



**Gizarte eta Komunikazio Zientzien Fakultatea**

**KAZETARITZA GRADUA**

2016-2017 IKASTURTEA

**SEXU ERASO ETA ABUSUEN SALAKETAK EUSKAL HERRIAN  
(2016, UZTAILA ETA ABUZTUA): EUSKADIKO HIRU EGUNKARIK  
EGINDAKO JARRAIPENAREN ETA TRATAMENDUAREN ANALISIA**

EGILEA: IRUNE BARCENA

ZUZENDARIA: JOSE IGNACIO ARMENTIA

Leioa, 2017ko maiatzaren 31

“Gradu amaierako lanaren autoreak aitortzen du lan original eta propio honetan agertzen diren datuak egiazkoak direla, bere gain hartuz horrela ez balitz, zehaztasun ezen ondorioz (plagioa, argazkien erabilera desegokia, etab.) sortu ahal diren erantzukizunak”.

## **Sexu eraso eta abusuen salaketak Euskal Herrian (2016, uztaila eta abuztua): Euskadiko hiru egunkarik egindako jarraipenaren eta tratamenduaren analisia**

### **Laburpena**

Ikerketa honetan 2016ko San Fermin jaien hasieratik, udaren bukaerara arte (uztailaren 7tik abuztuaren 31ra) Euskal Herrian izandako sexu eraso eta abusuen salaketen inguruan Euskal Autonomia Erkidegoko prentsak argitaratutako informazioak arakatu dira, hauei emandako jarraipena eta tratamendua aztertuz, mota horretako salaketen aurrean izan ohi duen jarrera aztertzeko xedearekin. Horretarako, egoitza nagusia Euskadin duten hiru egunkari, eta aukeratutako tartean oihartzun handiena izan duten zortzi kasuak hautatu dira. Gertakari bakoitzaren inguruko informazioa, prentsan agertu zen lehenengo egunetik, aste bat pasa zen arte bildu da. Horiekin, datuen konparaketan oinarritzen den analisi kuantitatiboa, eta printzipio etikoen aplikazioaren aztertzeari oinarritzen den analisi kualitatiboa burutu da. Oro har, lan akademiko honen helburu nagusiak hauek izan dira: askatasun sexualaren aurkako delituen salaketek Euskadiko prentsan zenbat leku hartzen duten azterzea, eta ematen zaien trataera informatiboa ezagutzea.

**Hitz gakoak:** sexu eraso / abusu sexuala / hedabideak / Euskadiko prentsa / jarraipena / trataera informatiboa

## **Sexual assault and abuse complaints by Basque Country's press (2016, July and August): Treatment and follow up analysis done by three Basque journals**

### **Abstract**

In this academic research an analysis of informative tracking and treatment made by Basque press about aggressions and sexual abuses complaints that happened from the beginning of San Fermin parties, until the end of summer (from 7<sup>th</sup> of July – 31<sup>st</sup> of August) is going to be related, with the aim of determining the attitude the media has to these type of cases. For this investigation three journals have been chosen, which's headquarters are in Basque Autonomous Community, and the eight more relevant cases of sexual assault or abuse happened in the sample taken. The information has been collected since the first time each event was published, until a week later. To sum up, a quantitative analysis has been carried out based on the comparison of data, and a qualitative one based on the application of ethical principles. Roughly, these are the main objectives of the research: to define the importance given to accusation of crimes about sexual freedom in Basque press, and the informative treatment given to them.

**Key words:** sexual assault / sexual abuse / media / Basque press / follow up / informative treatment

## AURKIBIDEA

---

<b>1. SARRERA</b> .....	<b>5</b>
1.1. Lanaren aurkezpena .....	5
1.2. Ikerketaren helburu orokor eta zehatzak.....	6
1.3. Hipotesiak .....	6
<b>2. MARKO TEORIKOA</b> .....	<b>7</b>
2.1. Aurrekariak .....	7
2.2. Gaur egungo ikerketak.....	8
2.3. Kontzeptu teorikoak.....	10
2.4. Egunkarien ikerketa .....	11
2.4.1. Euskal Autonomia Erkidegoko paperezko prentsaren analisia .....	12
<b>3. METODOLOGIA</b> .....	<b>15</b>
3.1. Analisi kuantitatiboa .....	16
3.2. Analisi kualitatiboa .....	19
<b>4. IKERKETAREN EMAITZAK</b> .....	<b>23</b>
4.1. Analisi kuantitatiboaren emaitzak .....	23
4.1.1. Jarraipena eta garrantzia .....	23
4.1.2. Kontzeptuen erabilera.....	33
4.1.3. Bestelako xehetasunak.....	33
4.2. Analisi kualitatiboa: Tratamendu informatiboa .....	36
4.2.1. <i>El Correo</i> .....	36
4.2.2. <i>Deia</i> .....	43
4.2.3. <i>Berria</i> .....	48
4.2.4. Analisi kuantitatiboaren azken emaitzak.....	51
<b>5. ONDORIOAK</b> .....	<b>52</b>
<b>6. BIBLIOGRAFIA</b> .....	<b>54</b>
<b>7. ERANSKINAK</b> .....	<b>56</b>

## 1. SARRERA

---

### 1.1. Lanaren aurkezpena

Iruñako San Fermin jaietan emakume batek bost gizonen artean bortxatu izana salatzeak 2016ko uda zeharo markatu zuen. Azken urteetan jai horietan askatasun sexualaren aurkako delituen inguruko albisteak oso anitzak izan badira ere, kasu horrek berebiziko oihartzuna izan zuen. Euskal Herriko prentsatik harago, egunkari eta telebista estatalek jarraipena ere egin zuten. Denbora tarte labur baten barruan, kasuari morboa eta erakargarritasuna atxiki zioten zenbait xehetasun ezagutzera eman ziren, hala nola, atxilotuen artean guarda zibil bat zegoela, gertakaria nola jaso zelako ustezko bertsioak, edo ustezko bortxaketa grabatuta egon litekela: “Un guardia civil, entre los cinco detenidos por violación” (*El Periódico*, 2016/07/09); “En el camino, aprovechando que estaba abierto el portal número 5 de la calle Paulino Caballero, sujetaron a la joven «por las muñecas» y la obligaron a entrar” (*El Mundo* 2016/07/09); “Valiéndose de su superioridad física y de la «imposibilidad de la víctima» para solicitar auxilio, llevaron a cabo varias agresiones sexuales «mientras grababan los hechos»” (*20 minutos*, 2016/07/09)”. Aurrerago gainera, ustezko bortxatzaileen identitatea ezagutzera eman zen haien argazkiak argitaratuz, eta haien arteko Whatsapp elkarrizketak zabalduz. Hala ere, horrek ez zion gertakariari ospe gehiagorik eman, jadanik nahiko ezaguna baitzen.

Prensatik haratago, salatutako eraso sexualaren kontrako gizarte mugimendua oso indartsua izan zen. Gertatutakoaren berri eman bezain pronto, elkarretaratzeak antolatuta ziren, eta horrek, uda osoan Euskal Herri guztitik zehar iraun zuen dinamika bati hasiera eman zion. Kontzentrazio-deiez gain, bortxaketa salaketaren ondoren Euskal Herriko jaietan sexu eraso eta abusuen prebentziorako kanpainak indarrez hasi ziren. *Ez ezetz da!* lelopean, gazteei batez ere, sexu eraso edo abusuen aurrean isildu behar ez zirela, eta salaketak egiteko lotsarik edo beldurrik izan behar ez zituztela helaraztea zuen helburu kanpainak. Horretarako, sexu abusuak era egokian identifikatzeko gomendioak eman ziren uda osoan zehar, eta hauen aurrean jarraitu beharreko protokoloaren inguruan informatzen saiatu ziren eragile sozialak. Halaber, gizarte kontzientzia moral kolektiboa sustatzeko xedea zuen ere: norberari gertatutako erasoaren aurrean zer egin esateaz aparte, agresio baten lekuko izatean nola ekin behar zen ere azaltzen zuen kanpainak.

Gaurkotasun handiko gaia izanik, ikertzaileak arazo sozial honen inguruko kezka handia sentituz, eraso salaketen inguruan arakatzeko jakin-mina izan du. Euskadiko prentsak sexu erasoari emandako tratamendua aztertzen duen ikerketarik ia ez dago, eta are gutxiago, askatasun sexualaren ikuspuntutik egiten duenik, ia gehienek, genero indarkeriarenetik egiten baitute. Horregatik *El Correo*, *Deia* eta *Berria* egunkariak Euskadiko paperezko prentsaren erreferentzia gisa harturik, udako gertakari entzutetsuenei egindako jarraipena eta emandako trataera informatibo aztertu dira lan akademiko honetan.

## 1.2. Ikerketaren helburu orokor eta zehatzak

Ikerketaren helburu orokorra Euskal Autonomia Erkidegoko egunkarietako askatasun sexualaren aurkako delituen aurrean zer nolako jarrera duten aztertzea da. Hain zuzen, horrelako kasuei emandako jarraipena eta tratamendu informatiboa aztertzea. Halaber, puntu hauetan biltzen diren zazpi helburu zehatz ditu lan akademiko honek:

- 1) Euskadiko prentsak, oro har, sexu eraso eta abusuei zer nolako garrantzia ematen dieten aztertzea, egunkarietako egindako jarraipenean oinarrituz. Ondoren, aztertutako egunkarietatik jarraipen handiagoa zeinek egin duen ondorioztatzea.
- 2) Askatasun sexualaren aurkako delituei erreferentzia egiteko erabiltzen den terminologia ohikoena zein den zehaztea.
- 3) Hedabideek sexu erasoak eraso sexistekin, eta era berean, genero indarkeriarekin lotzen dituzten aztertzea.
- 4) Delituen inguruan informatzean, biktimaren eta erasotzailearen nazionalitateari zer nolako garrantzia ematen zaion aztertzea, eta tratatu parekotasuna dagoen hauek bertakoak edo atzerritarrak direnean.
- 5) Zehaztea zein genero eta titulu mota diren ohikoenak sexu eraso eta abusuen inguruko informazioak helarazteko.
- 6) Informazioen gehiengoak emakumeek ala gizonen idazten dituzten argitzea.
- 7) Sexu eraso eta abusuen tratamenduan Euskadiko egunkarietako printzipio etikoak errespetatzen dituzten aztertzea. Ondoren, aztertutako egunkarietatik zeinek egin duen urraperen gehien eta zeinek gutxien zehaztea.

## 1.3. Hipotesiak

Lan akademiko honen emaitzak ahalik eta zehatzenak izan daitezzen, ikerketaren ardatz diren zenbait hipotesi planteatu dira. Era berean, hipotesien sakontzea beharrezkoa izan denean, bakoitzak planteatutakoarekin lotura zuzena duten iker galdera edo *Research Questions* batzuk gehitu dira. Hauek guztiak, ikerketa kuantitatiboaren eta kualitatiboaren bidez ebazteko dira, eta behin ikerketa burututa, betetzen diren ala ez ondorioztatu ahal izango da.

Hauek dira planteatutako hipotesi eta iker galderak:

H1: Euskal Autonomia Erkidegoko egunkarietako askatasun sexualaren aurkako salaketan inguruan informatzen dute, baina denboran zehar egindako jarraipena ez da oso handia.

H1i lotutako *Research Questions* edo iker galderak:

RQ1: Euskadiko egunkarietako arreta gehiago ipintzen diete hiriburu-eremuko jai handietan jazotako gertaerei?

RQ1: Kasuen jarraipen handia egin arren, hauei egunkarian eskaintzen zaien tokia eskasa da?

RQ1: Alde handiak daude *El Correo*-k, *Deia*-k eta *Berria*-k egindako jarraipenaren artean?

H2: Kode deontologikoetan ezartzen diren printzipioen urrapena legez zigortua ez dagoenez, egunkariak hauek ez betetzeko joera dute.

H2ri lotutako *Research Questions* edo iker galderak:

RQ2: Eraso eta abusu sexualen kasuan, zein da gehien urratzen den printzipioa?

RQ2: Euskadiko egunkariak errugabetasun presuntzioa errespetatzen dute?

RQ2: Euskadiko egunkarien informazio testuetan askatasun sexualaren aurkako delituen aurrean duten jarrera islatzen da?

H3: Trataera informatiboa ez da parekoa biktima edo erasotzailea tokikoa denean eta atzerritarra denean.

H3ri lotutako *Research Questions* edo iker galderak:

RQ3: ¿Biktima edo erasotzailea atzerritarra denean tituluaren era argian aipatzen da, eta tokikoa denean ez?

RQ3: ¿Biktima edo erasotzailea kanpotarra denean haren bertsioari sinesgarritasun txikiagoa ematen zaio?

H4: Egunkariak ez dituzte askatasun sexualaren aurkako delituak genero indarkeriarekin lotzen.

H4ri lotutako *Research Questions* edo iker galderak:

RQ4: Ohikoa da eraso edo abusu sexuarekiko erreferentzia egiten dieten tituluaren ‘eraso sexista’ edo ‘biolentzia matxista’ bezalako kontzeptuak ikustea?

H5: Sexu eraso eta abusuen inguruko informazio gehienak emakumeak idazten dituzte.

## 2. MARKO TEORIKOA

---

### 2.1. Aurrekariak

M. Lorente Acostak eta J.A. Lorente Acostak (1998:46) azaltzen dutenez, emakumeen kontrako erasoak aurrehistorian agertu ziren emakumezkoen sumisio elementu gisa, bortxaketen bidez emakumea kontrolatzea eta menperatzea bilatzen zenean. Egoera hori islatzen duen lehenengo erreferentzia greziar mitologian aurkitzen da. Koulianos-Manolopoulos eta Fernández Villanuevak (2008: 2) argitzen dutenez, greziar mitologiak kontatutako bortxaketak egitura patriarkalaren jatorri dira. Halaber, jarduera natural legez aurkezten dira, eta askotan jainkoen arteko harreman egonkorren eta beste jainko batzuen jaiotzen sorburu dira.

Su hermana Demeter tampoco escapó de este destino, Zeus la violó, engañándola disfrazado de toro. Después para calmarla y evitar su venganza la engañó por segunda vez, castrando a un cabrón y diciendo que en señal de arrepentimiento se había castrado él mismo. De esta violación nació Perséfone (Core), que también fue violada por su padre, Zeus. Perséfone fue secuestrada (y violada) por Hades, dios del averno que la tomó como mujer y la convirtió en reina del averno. (Koulianou-Manolopoulo eta Fernández Villanueva; 2008: 2)

Mitologia horretan bortxaketa gizarte egituraren partetzat hartzen dela ikus daiteke. Gainera, autore berek (2008: 3) azaltzen dutenez, legitimotzat eta historiarentzat beharrezkotzat hartzen den egitura da, eta eraso horien gaitzespen seinu bakarra da zenbait bortxaketen fruitu diren seme-alaba desitxuratuak, zeintzuk hala ere, intzestuaren praktikagatik, eta ez bortxaketengatik jasotako zigorrak dirudite askotan.

C. Sánchezek (2000: 20) azaltzen duenez sexu erasoek kontra egindako lehenengo gizarte ekimenak mugimendu feministari atxikitzen zaizkio, emakumeek bizi izandako abusu sexualak partekatzen hasi zirenean, lehenengo haien artean, eta ondoren era publikoan. M. Lorente Acostak eta J.A. Lorente Acostak (1998: 20) horren inguruan argitzen dutenez, Iraultza Frantsesan, 1789an, lortu zen mugimendu feministak benetako eragina izatea, momentura arte gizonen eta emakumeen parekotasuna maila intelektualean baino ez baitzen planteatzen. Gizonen eta emakumeen berdintasun hutsetik harago, biolentzia matxistaren kontrako ekimenak entzutetsuak izan ziren arte urte asko pasatu behar izan ziren. XX. mendeko 80ko hamarkadan mugimendu feministaren errebindikazioak indartu egin ziren eta 'genero indarkeria' terminoa hedabideetan zabaltzea eragin zuten. Indarkeria horien barne, eraso eta abusu sexualak sartzen ziren. Hurrengo bi hamarkadetan, emakumeen babesa bermatzeko legeak onartzen hasi ziren ia mundu osoan. Espainian 1995ean onartu zen lehenengo aldiz genero indarkeriaren kontrako neurri batzuk biltzen zituen legeria bat: Zigor Kodeari buruzko azaroaren 23ko 10/1995 Lege Organikoa.

Halaber, Koulianou-Manolopoulo eta Fernández Villanuevaren (2008:14) aburuz, medikuntzaren aurrerapenei ere zor zaizkie gaur egun sexu erasoek salaketan inguruan emandako aurrerapausoak, XVIII. mendean himenaren aurkitzearekin, eta batez ere XX. mendeko amaieran DNA frogatan eman ziren aurrerakuntzekin, eraso sexuala egon dela frogatzea, eta erasotzailearen identitatea aurkitzea asko erraztu delako.

## 2.2. Gaur egungo ikerketak

Sexu erasoek inguruan egindako ikerketa gehienetan hauek genero indarkeriaren barne kokatzen dira. Lan akademiko honetan erasoak askatasun sexualaren aurkako delituen ikuspegitik aztertuta badira ere, balizkoa da hauek testuinguru orokor baten kokatzea eta autore ezberdinek genero indarkeriaren barneko sexu erasoek inguruan esandakoa miaztea, azken finean, gertakarien muina berdina baita.



Pérez Salacioren (2001) aburuz hedabideak funtsezkoak izan dira emakumeen aurkako biolentziaren kezka gaurkotasunean kokatzeko prozesuan. Autore berak (2001), eta baita Armentia Vizuetek, Caminos Marcetek, Marín Murillok eta Ganzabal Learretak (2012: 52) prentsaren inflexio puntua, genero indarkeriaren inguruko jarraipen eta tratamenduari dagokionez, 1997an jazotako Ana Orantesen hilketan kokatzen dute, medioek genero indarkeria arlo pribatuko arazo soiltzat hartzeari utzi baitzioten, gizartearen inplikazioa bilatuz.

Dos semanas antes, la mujer había aparecido en un reality show televisivo, relatando el calvario de su convivencia junto a un marido violento. Confesaba su miedo y pedía ayuda para huir de un peligro a quien el juez había permitido seguir viviendo en la misma casa. Poco tiempo después, su marido la ató a una silla, la roció con gasolina y le prendió fuego en el patio de una casa que compartían por mandato judicial. La televisión mostró los restos de su cadáver, aún humeantes. Y conmovió las conciencias. Los medios de comunicación tienen ese poder. (Pérez Salicio, 2001)

Gauzak horrela, 2000tik aurrera indarkeria matxistaren inguruko informazioak gertakari isolatuak balira bezala tratatzeari utzi zion prentsak eta kasuen inguruko jarraipena egiten hasi zen, hauen garapena eta bukaera ezagutzera emanez -erasotzaileari inposatutako zigorra, adibidez- (Armentia Vizuite et.al., 2012:64). Perez Salaciok (2001) azaltzen duenez, emakumeen aurkako erasoek kopurua urte askotan zehar berdintsua izan zen, zifratu ez zen alde handirik egon; hala ere, indarkeriari lotutako gertakariak prentsan agertzeko maiztasuna gero eta handiagoa zen 2000. urtea hasi bezain pronto, ez kasu gehiago zeudelako, baizik eta medioek horiekiko zuten jarrera aldatu zutelako. Hala ere, horrekin batera autore berak (2001) eraso sexualen inguruko gertakariak kutsu sentsazionalista izaten jarraitzen zutela azpimarratzen du.

Armentia Vizuetek, Caminos Marcetek, Marín Murillok eta Ganzabal Learretak egindako ikerketan euskal prentsak 1990 eta 2010 urteen bitartean genero indarkeriari emandako tratamendua aztertu ondoren, gerora begira hobetzeko geratzen diren zenbait puntu ontzeko gomendioak planteatzen dituzte: genero indarkeria giza eskubideen urraperen bezala tratatzea, eta ez gertakari soil hutsa legez; sentsazionalismoaren eta morboaren errefusatzeko; kasuak testuinguruan aurkeztea eta ez gertakari isolatuak balira bezala; nazionalitateari edo kulturari erreferentzia egiten dieten datuak saihestea; iturri adituak bilatzea, familiarren edo auzokoen testigantzak alde batera utziz gertatutakoaren lekuko izan ez badira; biolentzia inolaz ere ez justifikatzea, eta azkenik, biktimaren ohorea errespetatzen duten argazkiak baino ez argitaratzea (2012:85).

Zurbano Berenguerak 2000 eta 2012. urteen artean Espainiako prentsak emakumeen aurkako biolentziaren inguruko informazio eta diskurtsoak nola eraikitzen dituen aztertu ondoren, egunkariak hauei emandako tratamenduari buruz dio modu orokorrean sexu

erasoak ez dituztela genero indarkeriaren barne kokatzen, baizik eta emakumeen kontra egindako eraso soil moduan (2014: 38). Bestalde, autore berak (2014: 42) kritikatzeko du hedabideek genero indarkeria biolentzia fisikoarekin bakarrik lotzen dutela, biolentzia psikologikoa edo ekonomikoa kanpo utziz.

### 2.3. Kontzeptu teorikoak

Ikerketa bere testuinguruan kokatzeko, ezinbestekoa da terminologia ezberdinen arteko aldeak aztertzea, hauen arteko muga oso mehea baita.

Espainiako Zigor Kodearen 1995eko azaroaren 23ko 10/1995 Lege Organikoaren VIII. tituluak eraso eta abusu sexualak askatasun sexualaren aurkako delituen barne biltzen ditu. Bertan, desberdindu egiten ditu bien arteko aldeak:

- Eraso sexuala: Kode Penalaren 178. artikulua ezartzen duenez, eraso sexualtzat hartuko da delitua, biolentzia edo larderiaren bidez pertsona baten askatasun sexualaren kontra egin denean. Honen kartzela zigorra bat eta bost urteren artekoa izango da.

Ondoren, 179. artikulua zehazten duenez, sexu erasoak bagina, ipurtzulo edo aho bidezko kopulazioan, edo bagina edo ipurtzulo bidezko gorputz-atalen edo objektuen sartzean oinarritzen bada, erantzuleari bortxaketa atxikituko zaio, eta kartzela zigorra sei eta 12 urteren artekoa izango da. Bortxaketa beraz, kargu larrigarria duen sexu eraso bat da.

- Abusu sexuala: Kode Penalaren 181. artikulua azaltzen duenez, abusu sexuala deituko zaio delituari, askatasun sexualaren kontrako ekintza biolentzia edo larderiarekin gabe egin denean, eta biktimaren onarpenik egon ez denean. Delitu honentzako zigorra, bat eta hiru urteren arteko kartzela zigorrean, edo 18 eta 24 hilabeteren arteko isunean datza.

Artikulu beran azaltzen denez, abusu sexuala onarpenik gabe egin dela ondorioztatzen da, zentzurik gabe dagoen pertsona baten egoeraz, edo arazo mentalak dituen pertsona baten zentzugabetasunaz abusatzen denean, edo farmako, droga edo bestelako eragingarri kimikoen eraginez borondatea baliogabetua duen pertsona baten kontra egin denean delitua. Hau da, pertsona batek lotan dagoen beste pertsona bati bagina ukitzen badio eta hau esnatzen ez bada, abusu sexuala izango da delitua; ordea, esnatzen bada eta ezetza ematen badio, biktima zentzudun dagoenez eta bere borondatea zein den azaldu duenez, sexu eraso izango da. Orobat, argudio bera jarraituko da delitua bagina, ipurtzulo edo aho bidezko kopulazioan, edo bagina edo ipurtzulo bidezko gorputz-atalen edo objektuen sartzean oinarritzen bada, legez bortxaketa sexu eraso baino ez baita.

Beraz, definizio horiei jarraiki, eraso eta abusuaren desberdinketa bakarra, delitua biolentzia edo larderiarekin egin den ala ez da. Bortxaketa, berez, sexu eraso

delituaren barne sartzen bada ere, bestelako kasuak zein kontzepturen barne sartzen diren jakiteko, biolentzia eta larderia nola definitzen diren jakin beharra dago, muga horrek ezartzen baitu delituaren larritasun maila. Halaber, definizioak bere baitan ulertzeko, lehenik eta behin askatasun sexuala zehazki zer den ezagutu behar da, funtsean honen urrapenean oinarritzen baitira delituak.

- Askatasun sexuala: J.M. Sánchezek (2005:129) azaltzen duenez, askatasun sexuala, Espainiako Konstituzioaren 17. artikuluan ezartzen den askatasunerako oinarrizko eskubidearen parte da, eta sexualitatearen arloan, pertsona ororen autodeterminazio eskubide bezala definitzen da, hau da, harreman eta jardura sexualak soilik berariazko onarpena dagoenean edukitzeko edo jasateko eskubidea.
- Biolentzia: Granados Pérez txostengilearen 1546/2002 sententziaren arabera, biktimaren borondatea menderatzeko bezain eraginkorra den indarra da biolentzia, eta biolentzia egoteak ez du esan nahi biktimak inolako lesiorik edo aztarnarik izan behar duenik (Silva Sánchez; 2005: 132).
- Larderia: Autore beraren arabera (2005:132) doktrina eta jurisprudentzia gehiengoek diote larderia gaitz baten iragartzearen bitartez biktiman ikara sortzean oinarritzen dela, hau da, haren bizitzari, integritate fisikoari edo askatasunari eragiten dion gaitzen bat gauzatuko delako mehatxua egitean.

Azkenik, biolentzia zer den azalduta, sexismoaren eta matxismoaren arteko aldea zein den azalduko da, askotan era berdinean erabiltzen baitira.


- Espainiako Errege Akademiak (RAE) sexismoa sexu arrazoiek bultzatutako pertsonen arteko diskriminazio legez definitzen du. Bestalde, Alvarez Uriak (2010) azaltzen duenez, matxismoa gizonen emakumeekiko duten nagusitasun jarrera gisa definitzen du. Hau da, sexismoa sistema patriarkalak azpiratutako sexu femeninoa gutxiagotasun, menpekotasun eta esplotazio egoeran mantentzeko moduen multzoa den bitartean, matxismoa modu horiek praktikan ipintzen dituen jarreraren multzoa da.

#### **2.4. Egunkarien ikerketa**

Egunkarien aukeraketa egin ahal izateko, Euskadiko paperezko prentsaren inguruko zenbait datu ezagutzea beharrezkoa da, audientziari, hedapenari eta argitaratze hizkuntzari lotutako ezaugarriak erabakigarriak baitira lagina aukeratzeko orduan.

### 2.4.1. EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO PAPEREZKO PRENTSAREN ANALISIA

**1. grafikoa: Euskal Autonomia Erkidegoan eguneroko prentsaren 2015eko audientzia metatua milakoetan neurtua**



Iturria: CIES. <http://www.ciessl.com/imagenes/13.pdf>

CIESeK egindako azkeneko ikerketak islatzen duenez, Euskal Autonomia Erkidegoko eguneroko prentsaren audientzian zatiketa handia dago. 2015ean Vocento taldeko *El Correo* izan zen irakurle gehien izan zituena, beste egunkariei alde nabarmena ateraz. Talde bereko *Diario Vasco* izan zen bigarrena, eta Noticias taldeko *Deia* hirugarrena. Bigarrenaren eta hirugarrenaren arteko aldea ere oso nabarmena da. *Deiak* gainera, alde handia ateratzen die bere talde bereko *Noticias de Gipuzkoa* eta *Diario de Noticias de Álava* egunkariei, hauek zerrendan azkenekoak agertzen direnak baitira (hamargarrena eta hamaikagarrena).

Euskadiko prentsaren batasuna oro har ez da oso handia. Lehenengo postuetan dauden egunkariak begiratu, prentsa erregionala eta lurralde edo herrialdekoa nagusi dela ondorioztatu daiteke.

<b>1. taula: Euskal Autonomia Erkidegoan audientzia gehien dituzten egunkarien klasifikazioa, hedapen eremua eta egoitza nagusiaren kokalekua</b>			
<b>Egunkariak:</b>	<b>Mota:</b>	<b>Eremua:</b>	<b>Egoitza nagusia:</b>
<i>El Correo</i>	Erregionala	Bizkaia batez ere, eta Araba, Miranda de Ebro, Gipuzkoa eta Errioxa	Bilbo

<i>El Diario Vasco</i>	Lurralde edo Herrialdekoa	Gipuzkoan batez ere, eta Baztan-Bortziriak zonaldea	Donostia
<i>Deia</i>	Lurralde edo Herrialdekoa	Bizkaia	Bilbo
<i>Marca</i>	Estatu mailakoa	Autonomia Erkidego guztiak	Madril
<i>Gara</i>	Euskal Herri mailakoa	Euskal Autonomia Erkidegoa, Nafarroa eta Iparralde	Donostia
<i>El País</i>	Estatu mailakoa	Autonomia Erkidego guztiak	Madril
<i>Berria</i>	Euskal Herri mailakoa	Euskal Autonomia Erkidegoa, Nafarroa eta Iparralde	Andoain
<i>Mundo Deportivo</i>	Estatu mailakoa (edizioa du Euskadin)	Autonomia Erkidego guztiak	Bartzelona
<i>El Mundo del País Vasco</i>	Estatu mailakoa (edizioa du Euskadin)	Euskal Autonomia Erkidegoa	Madril/Bilbo
<i>Noticias de Gipuzkoa</i>	Lurralde edo Herrialdekoa	Gipuzkoa	Donostia
<i>Diario de Noticias de Álava</i>	Lurralde edo Herrialdekoa	Araba	Gasteiz
Iturria: norberak egindakoa Guía de la Comunicación Abierta webgunean lortutako datuekin. <a href="https://gida.irekia.euskadi.eus/es/categories/32">https://gida.irekia.euskadi.eus/es/categories/32</a>			

Vocento taldeko *El Correo*-k sei edizio erregional ditu, Bizkaia eremuan zabaltzen dena izanik indar handiena duena. Talde bereko *Diario Vasco* Gipuzkoan zabaltzen da gehien bat –Nafarroakoa Baztan-Bortziriak zonaldean ere hedatzen da–. Noticias taldeko egunkariei dagokionez, hauek ere lurraldekoak dira. Beraz, lehenengo hirurak ikusita, irakurleek gertuko albisteak lantzeari ematen dieten garrantzia argi geratzen da. Halaber talde bietan fenomeno logiko bat ikusi daiteke: Bizkaian Euskadiko populazioaren parterik handiena bizi dela kontuan izanik, zentzua du lurralde historiko horretan irakurle kopurua ere handiena izatea.

Bestalde, albisteen tokikotasunari garrantzi handia ematen zaiola argi geratzen bada ere, laugarren postuan *Marca* egunkaria dago, kirolari lotutako informazioak lantzen dituenak. Hurrengoak *Gara*, *El País* eta *Berria* dira, informazio orokorragoa eskaintzen dutenak. *El Mundo Deportivo* kirol egunkaria da zazpigarrena. Eta azkenik, *El Mundo del País Vasco*, tokiko albisteak oso modu azalekoan lantzen dituenak, eta herrialde mailako *El Mundo* edizioaren informazio orokorreko albistekin osatzen dena; eta Noticias taldeko Gipuzkoako eta Arabako edizioak daude.

Audientziaren datuek, hala ere, ez dute guztiz bat egiten hedapenaren datuekin. Hedapenak soilik zehazten du egunkari bakoitzeko zenbat ale saldu iren, eta logikoa denez, audientziaren datuak hauek baino askoz handiagoak dira, egunkari bera pertsona batek baino gehiagok irakurri dezakelako. Zentzu horri jarraiki, *Marca* egunkaria hedapen zerrendan bosgarren postuan agertzen da, eta audientzian laugarrenean. Nabarmena da gainera hedapenaren eta audientziaren arteko aldea: 2016an egunero batz bestea 6.926 egunkari saldu zituen, eta egunero 82.000 irakurle izan zituen. Orobat, *Gara* eta *Berria*<sup>1</sup> egunkarien hedapen daturik ezin izan da aurkitu OJDren kontrolatan ez agertzea erabaki dutelako, beraz, *El País*-en igoera kenduta –*Marca* hedapenean postu bat jaisten delako–, ezin da jakin ordena guztiz mantenduko litzatekeen. Baiezatu ahal den bakarra da, esan bezala, irakurleen kopurua hedapenaren kopurua baino askoz handiagoa dela kasu guztietan.

<b>2. taula: Prentsaren eguneroko hedapena eta tirada 2016an Euskal Autonomia Erkidegoan</b>		
<b>Egunkariak:</b>	<b>Hedapena:</b>	<b>Aleko tirada:</b>
1 <i>El Correo</i>	61.975	79.954
2 <i>El Diario Vasco</i>	48.273	59.069
3 <i>Deia</i>	10.131	16.257
4 <i>El País</i>	7.756	11.550
5 <i>Marca</i>	6.926	10.491
6 <i>Mundo Deportivo</i>	6.357	9.799
7 <i>El Mundo del País Vasco</i>	2.515	4.923
8 <i>Noticias de Gipuzkoa</i>	2.417	6.234
9 <i>Diario de Noticias de Álava</i>	2.104	4.746

Iturria: norberak egindakoa OJD webgunean lortutako datuekin. <https://extranet.introl.es>

Azkenik, agerian geratzen den beste ezaugarri bat Euskadiko prentsan euskarak duen indar falta da. Gehien irakurtzen diren hamaika egunkarietatik, informazio guztia euskaraz argitaratzen duen bakarra *Berria* da. Halaber, *Deia*, *Gara*, *El Correo* eta *Diario Vasco* haien burua elebiduntzat badute ere, egitan ez dute inondik-inora informazioaren %50 euskaraz idazten, elebidunak izateko premisa dena. Hala ere, esan beharra dago, aipatutako horietatik, *Gara* egunkariak egiten duela euskararen erabilerarik handiena. Bestalde, *Deia*-ren kasuan, ohikoa izaten da iritzi sailean zutaberen bat euskaraz egotea, baina, informazio nagusiak lantzeko gaztelania erabiltzen du, eta euskaraz eskaintzen den informazioa sakona denean, gaztelaniaz idatzitako edukiarekin osatzen du.

<b>3. taula: Euskal Autonomia Erkidegoan audientzia gehien dituzten egunkarien argitaratze hizkuntza</b>	
<b>Egunkariak:</b>	<b>Argitaratze hizkuntza EAEn:</b>
<i>El Correo</i>	Gaztelania ia guztia, eta informazioaren bat euskaraz
<i>El Diario Vasco</i>	Gaztelania ia guztia, eta informazioaren bat euskaraz
<i>Deia</i>	Gaztelania ia guztia, eta informazioaren bat euskaraz

<sup>1</sup> Aipatu beharra dago *Berria* ez dela egunero argitaratzen, astelehenetan ez baitu alerik ateratzen.

<i>Marca</i>	Gaztelania
<i>Gara</i>	Gaztelania nagusi, baina zati handi bat euskaraz
<i>El País</i>	Gaztelania
<i>Berria</i>	Euskara
<i>Mundo Deportivo</i>	Gaztelania
<i>El Mundo del País Vasco</i>	Gaztelania
<i>Noticias de Gipuzkoa</i>	Gaztelaniaz ia guztia, eta informazioren bat euskaraz
<i>Diario de Noticias de Álava</i>	Gaztelaniaz ia guztia, eta informazioren bat euskaraz
Iturria: norberak egindakoa	

### 3. METODOLOGIA

Ikerketa egiteko 2016ko uztailako eta abuztuko hilabetetan zehar, San Fermin jaietatik abiatuta (2016ko uztailaren 7a), Euskal Herriko toki ezberdinetan jazotako eraso eta abusu sexualen salaketei buruz *El Correo*, *Deia* eta *Berria* egunkarietan argitaratutako informazioa bildu da.

Hasteko, azaldu beharra dago hemendik aurrera, kasuen izendapenean kenduta, sexu eraso kontzeptua, bai erasoerai bai abusuei erreferentzia egiteko erabiltzea erabaki dela, bien arteko muga oso mehea delako, eta epaiketa egon aurretik ezinezkoa delako ziurtasunez jakitea biolentzia edo larderiarik egon den ala ez. Terminoa orokorragoa delako hautatu da eraso eta abusuak. Halaber, kasuen izendapenean, horren inguruko datu zehatzik helarazi bada, salaketa zehazki zein delituagatik izan den azaldu da.

Gauzak horrela, konnotazio sexuala izan duten eraso sexistak baino ez dira kontuan hartu, eta lehenetsi egin dira prentsan jarraitasun handiena izan dituztenak, hau da, aukeratutako egunkari guztietan gutxienez behin agertu behar izan dira, eta baten behintzat, egun bat baino gehiagoko jarraipena eduki.

#### 4. taula: Ikerketarako aukeratutako kasuak ordena kronologikoan (2016)

<b>Gertaera:</b>	<b>Data:</b>	<b>Probintzia:</b>
Bost pertsonen arteko bortxaketa salatzen du neska batek San Fermin jaietan	2016/07/08	Nafarroa
Abusu sexual baten salaketa BBK Live jaialdian	2016/07/12	Bizkaia
Aixerrotako <i>paellas</i> jaietan bortxaketa salaketa	2016/07/26	Bizkaia
Gasteizko jaietan eraso sexual baten saiakeraren salaketa	2016/08/08	Araba
Eraso sexual baten salaketa Donostian	2016/08/11	Gipuzkoa
Bortxaketa salaketa Sopelako aparkaleku baten	2016/08/22	Bizkaia
Zenbait eraso sexualen salaketak Bilboko Aste Nagusian <sup>2</sup>	2016/08/23	Bizkaia
Eraso sexual baten salaketa Durangon	2016/08/24	Bizkaia
Iturria: norberak egindakoa		

<sup>2</sup> Guztira askatasun sexualaren aurkako 8 salaketa ipini ziren Bilboko Aste Nagusian.

Halaber, ez da faktore erabakigarri bat izan gertaerak Euskal Herriko zein tokitan gertatu diren, beraz, lurraldeen arteko desoreka handia da: aztertutako kasuen %62,5 Bizkaian jazo dira, %12,5 Gipuzkoan, %12,5 Nafarroan, eta beste %12,5 Araban.

Hedabideei dagokionez, paperezko egunkariak soilik aukeratu dira, edizio digitalak aldakorrek direlako, eta erredakzioetara edukien inguruko informazio berria sartzen doan heinean, aurretiaz argitaratutako informazioa birmoldatu baino ez dutelako egiten kasu askotan. Horren ondorioz, zaila izan daiteke analisi kuantitatibo fidagarri bat aurrera eramatea.

Azaldutakoa kontuan hartuz, esan bezala, egoitza nagusia Euskadin duten hiru egunkari aukeratu dira: Vocento taldeko *El Correo*, Noticias taldeko *Deia*, eta Berria taldeko (EKT) *Berria*. Lehenengo bien hautapena bi komunikazio talde horiek Euskadin gehien irakurtzen direnak direlako egin da, eta bai *El Correo*, bai *Deia*, talde horien barruan irakurle gehien dituztenak direlako. Bestalde, *Berria* informazio oro euskaraz eskaintzen duen egunkari bakarra delako aukeratu da. Halaber, nahiz eta Nafarroako kasu bat egon, Euskadin egiten diren egunkariak bakarrik kontuan hartzea erabaki da Nafarroako gertakizunei, eta are gehiago, San Fermin jaiei, garrantzia handia ematen dietelako. Gainera, ikerketaren xedea Euskadiko egunkariak sexu erasoak nola tratatzen dituzten aztertzea da, eta ez Euskal Herrikoek.

Laginaren aukeraketa eginda, jasotako informazioaren analisi kuantitatiboa eta kualitatiboa egin da, bien arteko baturarekin, aztergai dagoen gaiaren inguruko konklusioak atera ahal izateko. Azterketa hemerografiko hau gauzatzeko zenbait ikerketa miatu dira, eta azkenik, Pardok eta Bodinek 2012an egindako *Análisis de prensa de los casos de dopaje de Marta Domínguez y Alberto Contador: ¿héroes o villanos?* ikerlana erreferentzia legez hartzea erabaki da, oso modu erraz eta ulergarrian azaltzen delako metodologia. Nahiz eta azterketa horren ikergaiak lan akademiko honen gaiarekin zerikusirik ez duen, bertan kasu azterketa bat gauzatzen da, eta beraz, jarraitutako metodologiak ikerketa honetarako ere balio du.

### **3.1. Analisi kuantitatiboa**

Analisi kuantitatiboa burutzeko egunkarietako sail guztiak aztertu dira, iritzi sekzioa barne. Horren xedea egunkari bakoitzak gertakari bakoitzaren inguruko zer nolako jarraipena egin duen aztertzea da. Horretarako jazoera bakoitzaren jarraipena egin da aukeratutako medioetan horien berri lehenengo aldiz eman zenetik, aste bat pasa zen arte. Ondoren, kasu eta egunkari bakoitzarentzat taula bat bete da, eta bertan neurketa egiteko baliagarriak diren zenbait puntu bildu dira:

#### **❖ Ustezko biktima eta erasotzailearen datuak**

Puntu honetan ustezko biktima eta erasotzailearen sexua, eta hauen herritartasuna zehazten da. Nazionalitatea ezagutzea berebiziko garrantzia du, egunkariak datu horiek nola eskaintzen dituzten jakiteko, hau da, nazionalitatea protagonistak atzerritarrak direnean soilik aipatzen bada, edo tokikoak direnean ere aipatzen bada.



❖ Gertakaria zenbat egunetan zehar agertu da prentsan

Aste baten buruan, egunkari bakoitzean jazoera zenbat bider agertu den adierazi da puntu honetan. Denbora lagina kontuan hartuta, puntu honetan, eta guztietan, zortzi da *El Correo* eta *Deia*-rentzat egun kopuru maximoa, eta 7 *Berria*-rentzat, astelehenetan ez delako argitaratzen. Egunkari batek zazpi edo zortzi egunetan zehar argitaratu badu jazoeraren bat, egun bakar bat argitaratu badu baino jarraipen handiagoa egin duela esan gura du, beraz, garrantzia handiagoa eman diola ere esango da.

❖ Azalean agertu den ala ez, eta agertzekotan, argazkirik izan duen

Berri bat azalean agertzeak egunkari horrek gertakariari emandako garrantziaren isla handia da, egunero kazetek dituzten eduki guztietatik, bakar batzuk baino ezin baitira agertu. Argazki batekin irudiztatuta badaude gainera, lortu nahi den ikusgarritasuna orduan eta handiago da.

❖ Egunkariaren barrualdean argazkirik izan duen ala ez

Zenbatu egin da informazioak zenbat egunetan eraman duten argazkia, eta horien edukia zein izan den, argazkiek informazioa ere eskaintzen baitute. Normalean informazio laburrek ez dituzte argazkirik eramaten, beraz, argazkia ia egunero eraman duen informazio batek bere garrantzia izan du egunkarian. Horrez gain, baliagarria da jakiteko normalean zein argazki mota erabiltzen den gehiago eraso eta abusu sexualen inguruko informazioaren berri emateko (biktimarena, erasotzailearena, lekukoena...).

❖ Informazioari oro har emandako garrantzia

Klasifikazioa burutzeko lau maila ezberdin bereizi dira informazioari emandako garrantziaren arabera eta bakoitzari letra bat atxikitu zaio zenbaketa taulan:

A – Informazioa orrialdearen gai nagusia denean.

B – Informazioak orrialdea zabaltzen ez duenean, baina garrantzi nahikoa duenean.

C – Berriak garrantzi eskasa duenean (labur bat, adibidez).

D – Informazioa beste gertakari bati buruzko albiste edo erreportaje baten barnean dagoenean. Hau da, albistea berez ez da gai horren ingurukoa baina aztergai dagoen gertakariari erreferentzia egiten zaio.

Klasifikazio hau gertakaria agertu den egun bakoitzeko aplikatu da, ondoren, ikerketaren emaitzetan bakoitzak bataz-beste zer nolako inportantzia izan duen kalkulatu ahal izateko.

❖ Zein den informazioa lantzeko erabilitako generoa

Gertaerari buruzko informazioa albiste, erreportaje edo iritzi eran landu den zehazten du puntu honek, eta zenbatuz, zehaztu ahal izango da erasoei buruzko informazioak gehien bat zein generotan argitaratzen diren. Baliagarria da datu hori ezagutzea

informazioari emandako garrantzia ere zehazten duelako hein handia batean. Gertakaria erreportaje eran argitaratzean, gaiaren inguruko sakonketa bat egiteko interesa islatzen da; albiste eran, aldiz, informazio ohikoak eta ez hain sakonak eskaintzen dira, ez dira beste informazioengandik desberdintzen. Bestalde, iritzi sailean gertakariari buruz editorial edo iritzi artikulua bat argitaratzen denean, informazioak oihartzun handia izan duela esan gura du, eta ondorioz, egunkariak entzutea ere eman nahi diola esan nahi du.

❖ Titularra zein motakoa den

Tituluan informazio soila, interpretazioak, iritzia edo aipuak jasotzen diren aztertzen du puntu honek.

❖ Informazioak sinadurarik duen ala ez

Atal honetan informazio eta iritziek sinadurarik duten ala ez, eta izanez gero, gizon batek edo emakume batek sinatutakoa den zehazten da. Datu horrekin sexu erasoei buruzko informazioak tratatzeko normalean zein sexutako kazetariak hautatzen diren ezagutu nahi da.

❖ Kontzeptuen erabilera

Bestalde, erasoei erreferentzia egiteko hizkuntzarik ohikoena zein izan ohi den ere neurtu da. Horretarako, tituluetan hitz klabe batzuk zenbat aldiz errepikatzen diren aztertu da:

- Bortxaketa
- Eraso sexista
- Sexu eraso
- Biolentzia
- Ustezko (ustezko erasotzaileari erreferentzia egiteko)

<b>Analisi kuantitatiboa burutzeko erabilitako fitxa</b>					
<b>Egunkaria</b>					
<b>Gertakaria</b>					
<b>Biktima</b>	Gizona:	Emakumea:	Tokikoa:	Atzerritarra:	Daturik ez:
<b>Erasotzailea</b>	Gizona:	Emakumea:	Tokikoa:	Atzerritarra:	Daturik ez:
<b>Agertu zen lehen eguna</b>					
<b>Egun kopurua</b>					
<b>Azala</b>	Ez:	Egun bat:	Bat baino gehiago:		
<b>Azaleko argazkia</b>	Ez:	Bai:			
<b>-Argazki gaia:</b>	Biktima:	Erasotzailea	Eszena:	Gaitzespena:	Bestelakoak:
<b>Barruko argazkia</b>	Ez:	Bai:			

<b>-Argazki gaia:</b>	Biktima:	Erasotzailea	Eszena:	Gaitzespena:	Bestelakoak:
<b>Emandako garrantzia</b>					
<b>(1.egunaren data)</b>	A:	B:	C:	D:	
...	A:	B:	C:	D:	
<b>Generoa</b>	Albistea:	Erreportajea:	Sinatutako iritzia:	Editoriala:	
<b>Titulua</b>	Informatiboa:	Interpretatiboa:	Iritzia:	Aipua:	
<b>Bortxaketa hitza tituluari</b>	Ez:		Bai:		
<b>Sexu eraso hitza tituluari</b>	Ez:		Bai:		
<b>Eraso sexista hitza tituluari</b>	Ez:		Bai:		
<b>Biolentzia hitza tituluari</b>	Ez:		Bai:		
<b>Ustezko hitza tituluari</b>	Ez:		Bai:		
<b>Sinadura</b>	Ez:	Bai:	Gizona:	Emakumea:	
Iturria: norberak egindakoa					

Datuak jaso ondoren, taula bakoitzetik lortutako emaitzak gaika eta egunkarika alderatu dira emaitzak eta ondorioak atera ahal izateko.

### 3.2. Analisi kualitatiboa

Lan mota honen luzera mugak kontutan izanik, argitaratutako eduki guztien analisia egitea ezinezkoa litzateke, ondorioz, eduki guzti horiek ordezkatu dezaketen lagin bat hartzea erabaki da, lagin horren barruko elementuak egunkari bakoitzak kasu bakoitzari emandako tratamendua islatzeko baliagarriak baitira. Beraz, analisi kualitatiboa burutzeko *El Correo*, *Deia* eta *Berria* egunkarietan argitaratutako 33 azal, 107 titulu eta hauen titulazio elementuak, 74 sarrera, eta 63 argazki eta argazki-oin aztertuko dira. Hau da, iritzi saileko edukiak kenduta, aukeratutako laginaren barruan hautatutako kasuen inguruko azal, titulu, titulu elementu, sarrera eta argazki guztiak –iritzi sekzioa kanpo uztea erabaki da deontologia aldetik dituen mugak desberdinak direlako–.

Analisia aurrera eramateko zenbait kazetaritza-etika dokumentu hartu dira erreferentzia legez, horietan zehazten diren printzipio etikoak errespetatzen diren zehazteko xedearekin. Alde batetik, hiru egunkariak non kokatzen diren kontuan harturik, bai Europako Kontseiluak Estrasburgon 1993an onartutako *Europako Kazetaritzaren Kode Deontologikoa* nazioarte mailako dokumentua, bai Espainiako Kazetarien Elkarteetako Federazioak (FAPE) urte berdinean onartutako *Kazetari-lanbidearen kode deontologikoa* lurralde mailako kodeak oinarri bezala erabiltzea beharrezko da, kode bi hauek baitira esparru geografiko horri dagozkienak. Analisia proposatutako helburuetara moldatzeko xedearekin, ez dira bertan azaltzen diren printzipio etiko guztiak aztertu, baizik eta aztergai dagoen gaiarekiko hurbiltasuna izanik erreferente, zenbait aukeratu dira. Bestalde, Vocento eta Berria taldeetako barne kodeak aztertuko dira. Horietan ere, gertutasuna kontuan hartuz, printzipio gutxi batzuk aukeratu dira.

### 3.2.1. Europako Kazetaritzaren Kode Deontologikoa (Europako Kontseilua)

Europako Kontseiluaren *Europako Kazetaritzaren Kode Deontologikoa* 1993ko uztailaren lehen onartu zen aho batez Estrasburgon, honetan biltzen diren kazetaritzarako printzipio etikoak esparru europarrean aplikatzeko helburuarekin. Zazpi ataletan banatzen da<sup>3</sup>, eta guztira 38 artikulua ditu. Ikerketa honetarako hiru artikulua erabili dira, eta horrela laburbiltzen dira:

- Informazioen eta iritzien arteko bereizketa argia egin behar du kazetariak. Albisteak datuez osatutako informazioak diren bitartean, iritziek pentsamenduak, ideiak eta aurreiritziak adierazten dituzte (1.3).
- Kazetariak, bai informazio, bai iritzi sailetan, errugabetasun presuntzioa errespetatu beharra dute, batez ere, epailearen erabakiaren zain dauden gaien inguruan aritzeko (3.22).
- Tentsio egoeren aurrean, hedabideek balore demokratikoen alde egiteko betebeharrak morala dute (5.33).

### 3.2.2. Kazetari-lanbidearen Kode Deontologikoa (FAPE)

Espainiako Kazetarien Elkartearen Federazioak (FAPE) 1993an onartu zuen Sevillan, Ezohiko Asanbladaren bidez, *Kazetari-lanbidearen Kode Deontologikoa*. Espainia mailan etika dokumentu gorena da –Katalunian, salbuespen–, eta kazetarien autorregulazioaren alde egiten du. Kodea hiru ataletan<sup>4</sup> banatzen diren 20 artikuluk osatzen dute. Ikergaiarekiko gertutasun handiena duten hiru artikulua hautatu dira:

- Aurkakoa frogatzen den artean, pertsona guztiak errugabeak dira. Horrez gain, kazetariak delitu batengatik akusatuak edo zigortuak izan diren pertsonen gertuko nortasuna aipatzea ekidingo du, eta baita biktimena ere, batez ere sexu-askatasunaren aurkako delituen kasuetan (1.5).
- Kazetariak diskriminazioak saihestu behar ditu. Pertsonen arraza, kolorea, erlijioa, jatorri soziala edo sexua ez ditu argitaratuko informazioarekin zuzeneko erlaziorik ez badute, eta egitekotan, ez du mespretxuzko eran edo aurreiritziekin egingo (1.7)
- Kazetariak informazioak, iritziak, interpretazioak eta usteak era argian bereiziko ditu (3.5).

### 3.2.3. Vocento taldeko estilo liburua

*Libro de estilo Vocento* estilo liburua 2003an argitaratu zen Vocento taldeko hedabide guztietan aplika zedin, momentura arte taldearen barruko zenbait hedabideek –ABCk adibidez– zituzten etika dokumentuak bigarren maila baten utziz. José Martínez de Sousa linguistak idatzi zuen, eta lau zati handitan banatzen da: lehenengo partean ikuspuntu editorialari eta kazetaritzari lotutako printzipio orokorrak biltzen diren

<sup>3</sup> Informazioak eta iritziak (1), Informaziorako eskubidea oinarritzko eskubide gisa (2), Kazetaritzaren funtzioa eta bere jardura etikoa (3), Kazetaritza idazkeraren estatutuak (4), Gatazka egoerak eta babes bereziko gertaerak (5), Kazetaritza etika eta autokontrola (6), Ministroen batzorderako gomendioak (7).

<sup>4</sup> Printzipio orokorrak (1), Estatutua (2), Jokaera printzipioak (3).

bitartean; bigarren, hirugarren eta laugarrenean hizkuntza eta ortografiari lotutako irizpideak, eta lexikoari, toponimoari, jentilizioari, eta bestelako xehetasunei lotutako zalantzen argitzeak jorratzen dira.

Ikerketa kualitatiboan printzipio etikoak aztertzea baino ez da xedea, beraz, bigarren, hirugarren eta laugarren atalak ikerketatik kanpo utzi dira, baliagarriak diren printzipioak lehenengo partean baino ez baitira garatzen. Bertan, beste lau ataletan<sup>5</sup> banatzen diren 22 artikuluko biltzen dira. Horietatik, bost aukeratu dira:

- Kazetaria gertaera baten lekuko izan bada ez du iturririk aipatu behar, adierazpen kazetaritza erabili beharrean, hobe da bizitakoa bere hitz propioekin kontatzea. Halaber, gertakizunaren lekuko ez denean iturria aipatu beharko du, eta hau era zuzenean aipatzea posible ez bada, “gobernuko iturri baten arabera” edo antzeko formulak erabili ahalko dira. Bestalde, ezin izango dira erabili “iturri fidagarri baten arabera” edo antzerako formulazioak, ez baitute egitasunik bermatzen (1.2.4.a)
- Kazetaria ez da protagonista, informazio testuetan bere iritziek ez dute lekurik (1.2.8.a).
- Ez da erabiliko konfusioak zor ditzakeen argazkirik, eta kontu handia eduki beharko da kaltegarriak izan ahal diren argazkiak argitaratzeko orduan. Horrez gain, artxiboko argazkiak erabiliz gero, aipatu egin beharko da (1.2.11.a-c).
- Pertsonen intimitaterako eskubidea errespetatu behar da, eta ekidin egingo da inoren bizitza pribatua sartzeko. Gertakariari buruzko informazioak helarazteko inplikatuaren izenak inisialekin adieraziko dira, eta soilik emango da euren izena esfera publikoko pertsonari eragiten dieten gertakizunen kasuan. Halaber, kasu guztietan errespetatu beharko da errugabetasun presuntzioa (1.2.12).
- Kazetariak ez ditu informazioak puztuko erakargarriagoak izan daitezen (1.3.2.4.g).

#### 3.2.4. Berria taldeko estilo liburua

*Berria estilo liburua* 2006 irailean argitaratu zen, *Berria* ireki eta hiru urte beranduago<sup>6</sup> (edizio berriztatua 2013an atera zen). Bertan, deontologiari, informazio eta interpretazioari, euskarazko idazkuntzari, ortotipografiari eta onomastikari lotutako argibideak eskaintzen dira. Ikerketa honetarako deontologiari lotutako puntua baino ez da aztertu, besteak ez baitira baliagarriak.

Deontologia atalak zazpi printzipio nagusi biltzen ditu: ikuspegi aniztasuna, bereizketarik gabeko tratamendua, kazetarien jardunbidea, informazioa eta iritzia,

<sup>5</sup> Printzipio editorialak (1), Kazetaritza printzipioak (2), Kazetaritza estiloa (3), Publizitatea (4).

<sup>6</sup> 2003an Espainiako Auzitegia Nazionalak *Euskaldunon Egunkaria* itxi zuen Juan Del Olmo epailearen aginduz, eta itxiera horrekin batera, estilo liburua bahitu zuen. Hilabete gutxi batzuk pasa zirenean, ETKk (*Berria* taldea) *Berria* egunkaria ireki zuen, aurrekoaren hutsunea betetzeko intentzioarekin, eta euskarazko komunikabideak sustatzeko xedearekin. *Berria estilo liburuan* azaltzen denez, 2006an *Euskaldunon Egunkariaren* estilo liburua bahituta segitzen zuenez, ETKk estilo liburu berria sortzea erabaki zuen.

informazio iturriak, argazkiak, eta publizitatea. Azkeneko atalkoak kenduta, beste guztietan biltzen diren zenbait jarraibide erabiliko dira:

- Ez da onartuko sexuan, etnian, erlijioan, kulturen, sexu aukeran edo bestelakoetan oinarritutako diskriminaziorik. Kazetariak topiko eta aurreiritziak alde batera utziko ditu, eta errealitatea kontatzera mugatuko da (2).
- Genero indarkeria giza eskubideen urraketa bezala tratatuko da. Sentsazionalismoa baztertu beharko da, eta pertsonen intimitaterako eskubidea errespetatu (2.1.1).
- Ez dira etnia, erlijioa, jatorria edo kultura aipatuko informazioa ulertzeko beharrezkoa ez bada (2.3.1).
- Kazetariak errugabetasun presuntzioa errespetatu behar du bere sail guztietan, batez ere, atxilotuta baina epaitu gabe dauden pertsonen kasuan (3.3.4).
- Informazio generoetan ez da kazetariaren iritzirik onartuko. Informazioek objektibo behar dute izan (4.2).
- Informazio iturriak behar bezala identifikatuko dira. Iturri anonimoek ez dute lekutik egunkarian, eta ezin izango dira erabili “iturri fidagarri baten arabera” edo “ekonomia aditu baten esanetan” bezalako formularik (5.3).
- Argazkiak informazioak diren aldetik, ezin dira manipulatu ezta desitxuratu. Gainera, guztiak sinatuta agertu beharko dira, eta artxibokoak izanez gero, era argian adieraziko da (6.5).

### 3.2.5. Printzipio zehatzak

Aukeratutako kodeetan aipatzen diren printzipioak aztertu, eta zehatz batzuk hautatu eta gero, hauek sei oinarri etikotan laburbildu dira, analisia modu errazago baten burutzeko xedearekin.

- 1) Informazioa eta iritzia bereizi: Europako Kodea (1.3 art.); FAPEn Kodea (3.5.art.); Vocentoren Estilo Liburua (1.2.8.a art.); Berriaren Estilo Liburua (4.2 art.).
- 2) Errefusatu sentsazionalismoa: Vocentoren Estilo Liburua (1.3.2.4.g art.); Berriaren Estilo Liburua (2.1.1 art.)
- 3) Errespetatu errugabetasun printzipioa: Europako Kodea (3.22 art.); FAPEn Kodea (1.5 art.); Vocentoren Estilo Liburua (1.2.12 art.); Berriaren Estilo Liburua (3.3.4 art.)
- 4) Gertakaria ulertzeko beharrezkoa ez den informazioa ez eman (etnia edo jatorria, adib.): FAPEn Kodea (1.7 art.), Berriaren Estilo Liburua (2. art.)
- 5) Iturriak era egokian identifikatu: Vocentoren Estilo Liburua (1.2.4.a art.); Berriaren Estilo Liburua (5.3 art.)
- 6) Argazkien tratamendu egokia bermatu: Vocentoren Estilo Liburua (1.2.11.a-c); Berriaren Estilo Liburua (6.5 art.)

Emaitzak ateratzeko, zerrenda baten urrapen guztiak zenbakituko dira, eta bakoitza zehazki zein egunetan, zein egunkaritan eta zein orrialdetan eman den zehaztuko da.

Horrez gain, bakoitza urrapen legez zergatik hartzen den azalduko da. Urrapenaren zergatia behin eta berriz errepikatzen bada, argibidearen azaltzeko tokian “berdin” adieraziko da.

## 4. IKERKETAREN EMAITZAK


### 4.1. Analisi kuantitatiboaren emaitzak

#### 4.1.1. JARRAIPENA ETA GARRANTZIA

##### ❖ JARRAIPENA

Lehenengo eta behin, modu orokorrean, egunkari bakoitzak kasu bakoitzari emandako jarraipena aztertu da.

**2. grafikoa: Gertakari bakoitza aukeratutako egunkarietan aste baten buruan agertutako egun kopurua**



Iturria: norberak egindakoa

Grafikoan ikusi ahal denez, *Berria* da, oro har, aukeratutako sexu eraso eta abusu salaketen jarraipen txikiena egin duena. Guztira, 18 egun argitaratu ditu kasuen inguruko informazioak. Bestalde, *El Correo* eta *Deia*-ren arteko aldea ez da hain modu nabarmenean ikusten. Izan ere, egun bateko ezberdintasuna baino ez dute: *El Correo*-k, guztira, 28 egun argitaratu ditu informazioak, eta *Deia*-k 27.

Kasuei dagokionez, ezberdintasuna handiagoa da. Argi ikusi daiteke San Fermin jaietako gertakariak, eta Bilboko Aste Nagusiko kasuek jarraitasun handiena izan dituztenak izan direla. Hala ere, egun kopuru bera ez da berdina hiru egunkarietarako kasu baten ere ez. Orobat, *Berria*-k ez du inoiz beste biek baino jarraipen handiagoa

egiten, eta *El Correo* eta *Deia*-ren kasuan, gertakariaren arabera bata edo beste gailentzen da.

*El Correo* eta *Deia* egunkariak aste baten buruan egun kopuru maximora heltzen dira (8 eguneko jarraipena) San Fermin jaietako gertaerarekin, hau izanik, bien kasuan, gertakaririk jarraituena. *Berria* egunkariak aldiz, Bilboko Aste Nagusian gertatutako eraso eta abusuei egiten die jarraipenik handiena (6 egun)<sup>7</sup>, nahiz eta San Fermin jaietakoa oso gertu dagoen (5 egun). Beste kasu guztiak, aldiz, jaitsiera handia dute, *Berriak* egun bat baino ez baitie eskaintzen bakoitzari. *El Correo* eta *Deia*-rekin antzekoa gertatzen da. Bilboko Aste Nagusiko kasuak dira bigarren jarraituenak (6 eta 7 egun), eta hauen ondoren jaitsiera nabarmena da.

Aukeratutako kasu bakoitza hiru egunkarietan agertu den egun kopuruaren batuz bestekoa eginez, modu orokorrean, jarraipen gehien zeinek izan duen zehaztu daiteke. Emaitzak hurrengoak dira<sup>8</sup>:

<b>5. taula: Aukeratutako kasuak aste baten buruan <i>El Correo</i>, <i>Deia</i> eta <i>Berria</i> egunkarietan agertutako egun kopurua batuz beste, handienetik txikienera ordenatuta</b>		
	<b>Kasuak:</b>	<b>Egun kopurua (batuz beste):</b>
1	San Fermin	7
2	Bilbo	6,33
3	Aixerrota	2,33
4	Durango	2
5	Donostia	1,67
6	Sopela	1,67
7	Gasteiz	1,67
8	BBK Live	1,33

Iturria: norberak egindakoa

❖ GARRANTZIA

Garrantzia neurtzeko puntu honetan zerrendatuko diren lau elementu hartuko dira kontuan.

1. A,B,C eta D parametroak<sup>9</sup>

Aurretik aipatu den bezala, zenbakikuntza taulak osatzeko, A,B,C eta D parametroekin neurtu da garrantzi orokorra. Horren helburua gertakari bakoitza prentsan agertu den egun kopuruaz gain, zenbat toki hartu duen, eta ondorioz, zernolako inportantzia eman zaion zehaztea da; ez baita berdina, sei egun labur gisa agertzea, edo orrialdeko gertakari nagusi legez.

<sup>7</sup> *Berria* egunkariaren kasuan, jarraipen egun kopuru maximoa 7 da, astelehenetan ez baita argitaratzen.

<sup>8</sup> Donostia, Sopela eta Gasteizeko kasuek jarraipen bera dutenez, modu ausazkoan ordenatu dira.

<sup>9</sup> Ikus 3.1. puntua



Lehenik eta behin, kasu bakoitzeko egunak banan-banan aztertu dira, jarraitasun handiena izan duenetik hasiz. Ondoren, guztiak komunean jarri dira konparaketa egiteko.

<b>6. taula: San Fermin jaien gertaerari egunkari bakoitzak emandako garrantzia</b>			
	Gertakariari emandako garrantzia (A, B, C edo D)		
	<i>El Correo</i>	<i>Deia</i>	<i>Berria</i>
1. eguna	C	A	B
2. eguna	B	A	A
3. eguna	A	A	A
4. eguna	D	D	A
5. eguna	D	D	A
6. eguna	D	D	D
7. eguna	D	D	-
8. eguna	D	D	-

Iturria: norberak egindakoa

San Fermin jaietako gertakaria jarraitasun gehiena duena izanik, arreta deitzen du *El Correo* egunkariak lehenengo egunean kasuari labur bat baino ez eskaini izanak, eta orrialdeko gai nagusia soilik egun bakar baten. *Deia*-k bere aldetik, nahiz eta lehenengo egunetan gaiari garrantzi nabarmena eskaini, laugarrenetik aurrera, *El Correo*-k moduan, beste kasu batzuen barne baino ez zuen aipatu. *Berria* da kasu honetan, orokorrean, leku gehien eskaini diona. Nahiz eta egun gutxiagoko jarraipena egin, soilik egun baten eman dio D garrantzia, eta beste bi egunkariak San Fermin jaietako kasua beste kasu batzuen barne aipatzen hasiak zirenean, honek orrialdeko gai nagusi legez mantentzen jarraitzen zuen.

<b>7. taula: Bilboko Aste Nagusian jazotako gertaerei egunkari bakoitzak emandako garrantzia</b>			
	Gertakariari emandako garrantzia (A, B, C edo D)		
	<i>El Correo</i>	<i>Deia</i>	<i>Berria</i>
1. eguna	A	A	A
2. eguna	A	C	A
3. eguna	C	D	D
4. eguna	A	B	C
5. eguna	A	A	B
6. eguna	C	D	D
7. eguna	-	B	-

Iturria: norberak egindakoa

Bilboko Aste Nagusiko sexu eraso eta abusu salaketei garrantzia nahiko homogeen eta berdintsua eman diete hiru egunkariak. Kontutan izan behar da ere, Aste Nagusiko salaketa guztiak<sup>10</sup> hartu direla kontuan, eta San Fermin jaien kasuan, soilik kasu bat,

<sup>10</sup> Guztiara zortzi salaketa egon ziren.

bera bakarrik aztertzeke adina entzutetsu izan zelako. Beraz, logikoa da ere, San Fermin jaien kasuan D garrantzia duten albiste edo erreportaje asko egotea, eta Aste Nagusiko kasuan, ia egunero berri bat agertzen zenez, gaurkotasuna zuena izatea gai nagusia zena. Hau da, San Fermin jaiak bere osotasunean hartu izan balira, emaitzak seguruenez Aste Nagusikoen ia berdinak izango lirateke.

Hori azalduta, kasu honetan *El Correo*-ren aukeraketan desberdintasun nabaria ikusi daiteke. San Fermin jaien gertaerari inportantzia gutxien eman diona izan ondoren, Bilboko Aste Nagusikoei gehien eman diena da. Sei egunetik lau, orrialdeko gai nagusia izan da; eta soilik birritan eskaini dio labur bat.

<b>8. taula: Aixerrotan jazotako gertaerari egunkari bakoitzak emandako garrantzia</b>			
	Gertakariari emandako garrantzia (A, B, C edo D)		
	<i>El Correo</i>	<i>Deia</i>	<i>Berria</i>
1. eguna	A	A	A
2. eguna	A	B	-
3. eguna	A	-	-
4. eguna	B	-	-
Iturria: norberak egindakoa			

<b>9. taula: Durangoko gertaerari egunkari bakoitzak emandako garrantzia</b>			
	Gertakariari emandako garrantzia (A, B, C edo D)		
	<i>El Correo</i>	<i>Deia</i>	<i>Berria</i>
1. eguna	B	C	C
2. eguna	B	D	-
3. eguna	D	-	-
Iturria: norberak egindakoa			

<b>10. taula: Donostian jazotako gertaerari egunkari bakoitzak emandako garrantzia</b>			
	Gertakariari emandako garrantzia (A, B, C edo D)		
	<i>El Correo</i>	<i>Deia</i>	<i>Berria</i>
1. eguna	A	B	A
2. eguna	A	C	-
Iturria: norberak egindakoa			

<b>11. taula: Sopelako gertaerari egunkari bakoitzak emandako garrantzia</b>			
	Gertakariari emandako garrantzia (A, B, C edo D)		
	<i>El Correo</i>	<i>Deia</i>	<i>Berria</i>
1. eguna	A	C	A
2. eguna	A	D	-
Iturria: norberak egindakoa			

<b>12. taula: Gasteizen jazotako gertaerari egunkari bakoitzak emandako garrantzia</b>			
	Gertakariari emandako garrantzia (A, B, C edo D)		
	<i>El Correo</i>	<i>Deia</i>	<i>Berria</i>
1. eguna	A	B	A
2. eguna	-	C	-
3. eguna	-	D	-
Iturria: norberak egindakoa			


<b>13. taula: BBK Live jaialdiko gertaerari egunkari bakoitzak emandako garrantzia</b>			
	Gertakariari emandako garrantzia (A, B, C edo D)		
	<i>El Correo</i>	<i>Deia</i>	<i>Berria</i>
1. eguna	A	D	D
2. eguna	D	-	-
Iturria: norberak egindakoa			

Bilboko Aste Nagusiko salaketen kasua geroztik ageri diren taulen emaitzak nahiko antzekoak direla esan daiteke. Logikoa denez, prentsan egun gutxi agertu direnez, D garrantzia kasu gutxitan eman zaie. Salbuespen bakarra BBK Live jaialdiko salaketa da, zeinetan *Deia*-k eta *Berria*-k soilik ematen duten gertatukoaren berri beste agerkari baten barnean.

Beraz, orokorrean ondorioztatu daiteke, jarraitasun handiena izan duten gertaerak, gero ez dutela zertan egunkarietan inportantzia gehien jaso dituztenak izan behar.

Halaber, modu orokorrean, Euskadiko egunkariak askatasun sexualaren aurkako delituen salaketei zenbat leku, eta ondorioz, zer nolako inportantzia ematen dieten jakitea da ikerketa honen xedeetariko bat. Horretarako, kasuek egunkarietan agertutako egun bakoitzean izan duten garrantzia (A, B, D eta C parametroekin neurtua) batu dira. Ondoren, kalkulatu egin da gertakariak zer nolako maiztasunarekin izaten duten A, B, C edo D garrantzia.

**3. grafikoa: Egunkari bakoitzak kasu guztien baturari emandako garrantziaren (A,B,C eta D parametroen arabera) maiztasuna**




Iturria: norberak egindakoa

Argi ikusi daiteke askatasun sexualaren aurkako delituen salaketan berri ematen denean, *Deia* egunkariak kenduta, besteek eman ahal zaien garrantzirik handiena ematen dietela. Nabarmentzeko da gainera, *Berria* dela kasuen jarraipenik txikiena burutu duena, baina argitaratutako kasuei garrantzia gehien ematen diena. Bestalde, *Deia*-k albiste eta erreportajeak D garrantziarekin argitaratzen ditu kasu gehienetan.

Hala ere, hiru egunkarien arteko batz bestekoa eginez, mota horretako kasuak orrialdeko gai nagusiak izatea dela ohikoena ondorioztatu daiteke, besteekiko alde nabarmena baita. Ondoren, ikusi daiteke nola orrialde erdia edo labur bat eskaintzea ez den hain normala izaten; eta bestalde, beste kasu baten barne aipatzea sarri erabiltzen den errekurtoa dela.

**4. grafikoa: Egunkariak kasu guztien baturari emandako garrantziaren (A, B, C eta D parametroen arabera) maiztasuna batz beste**




Iturria: norberak egindakoa

## 2. Azalak

Garrantzia neurtzeko erabilitako bigarren elementua azalak dira. Lehenengo eta behin, ikergai dagoen kasu bakoitza aste baten buruan azalean zenbat bider egon den zenbatu da, eta grafiko bat osatu da, kasuak jarraipen handiena izan duenetik, txikiena izan duenera ordenatuz.

**5. grafikoa: Kasu bakoitza egunkariaren azaletan agertu den egun kopurua (agertu zen lehenengo aldiz, aste bat pasa zen arte)**



Iturria: norberak egindakoa


Nabarmentzekoa da berriro ere *El Correo*-k San Fermin jaien gertaerari jarraipen handiena eman ondoren, azalean soilik egun bat agertzeak. Hala ere, esan beharra dago *El Correo*-ren taldeak, Vocentok, ez duela ediziorik Nafarroan, eta beraz, normala da informazio askorik ez izatea. Gainera, *El Correo*-ren hedapen esparrua kontuan izanik, gertutasuna hartzen ohi du erreferente azaletako edukiak aukeratzeko orduan. Ondorioz, egunkari horretan bataz beste azal gehien izan dituen gertakaria Bilboko Aste Nagusikoa da. *Deia*-ren taldeak aldiz, Noticiasek, edizioa du Nafarroan, eta ondorioz, zentzua du honek han gertatutakoaren inguruko informazio asko edukitzeak.

Halaber, kasu guztien argitalpenak harturik, ondorioztatu daiteke, berriro ere, *Berria* dela gailentzen dena: *El Correo*-k argitaratutako kasu guztien %28,57ak agertu dira azalean; *Deia*-k argitaratutako %44,44ak; eta *Berria*-k argitaratutako %55,56ak. Beraz, esan bezala, azken honek argitalpen gutxiago baditu ere, gertakariei garrantzia gehien eskaintzen diena da, kasuen erdia baino gehiago azalean agertu baitira.

### 3. Argazkiak

Hirugarren elementu hau azalekin lotuz, lehenengo eta behin azalean argazkia eraman duten zenbat gertakari egon diren zenbatu da, horrek, kasuari oraindik eta nabarmentasun gehiago eman nahi zaiola adierazi nahi baitu.

**6. grafikoa: Kasu bakoitza egunkariko azalean argazkiarekin atera den egun kopurua**




Iturria: norberak egindakoa

Eta aurreko puntuan azaldu bezala, *Berria* da berriro ere, eta era oso nabarmenean gainera, gertakariak azalera gehien eraman dituen egunkaria. Azalak izan dituen 10 egunetatik sei argazkiekin argitaratu dira. *Deia*-ren kasuan arreta deitzen du San Fermin jaien gertaeraren kasuan hainbeste azal edukita (6) argazkiarekin behin ere ez ateratzea, eta aldiz, Aixerrotakoak azal bakarra edukita, bakar hori argazkiarekin joatea.

Ondoren, egunkarien barrualdean informazioarekin batera argazkiak zenbat egunetan argitaratu diren zehaztu da.


**7. grafikoa: Egunkarietako kasu bakoitzerako barrualdean erabilitako argazkien kopurua**



Iturria: norberak egindakoa

Azaleko argazkiak ez bezala, barrualdekoak anitzak dira. Bilboko Aste Nagusiko gertaerek dituzte argazki gehien (17), eta ondoren San Fermin jaikoak (16). Hauek biak dira argazki gehien dituztenak, zentzua duena kontuan izanik argitalpen gehien dituztenak direla. Hurrengo kasuak, jarraipenaren ordenarekin bat datoz gutxi gorabehera, eta ez dago bat bera ere ez egunen baten, egunkari baten behintzat, argazkirik eraman ez duenik.

**8. grafikoa: Aukeratutako egunkarietan kasuei buruz argitaratutako argazkien gaiak**



Iturria: norberak egindakoa

Modu argian ikusi daiteke gaitzespena adierazten duten argazkiak direla gehien erabili direnak egunkari guztien kasuan. Horrekin, alde batetik, egunkariak euren gutxiespena adierazten dute. Eta beste alde batetik, horrek esan nahi du ere, sexu eraso edo abusuren bat dagoen ia bakoitzean gaitzespena adierazteko elkarretaratzeak antolatzen direla, eta ondorioz, Euskal Herriko gizartea aktiboa dela ekintza horien baztertzeari dagokionez.


Bestalde, kasu mota hauei buruz informatzeko bigarren argazki gai erabiliena eszena da, eta hirugarrena, alde ez hain handiarekin gainera, bestelako gaiak (patruilatzen ari diren agenteak, polizia kotxeak, etab.). Azkenik, aztertutako denbora tartean behintzat, biktima eta erasotzailearen argazkiak ez dira behin ere ez argitaratu.

#### 4. Iritzi saila

Gertakariren bat iritzi sailean agertzen denean berebiziko garrantzia ematen zaiola esan nahi du. Horregatik, garrantzia neurtzeko azkeneko elementua da.

Egunkari bakoitzak kasuak iritzi sailera zenbat bider eraman dituen aztertu da, eta baita editoriala ala sinatutako iritzia izan den. *Berria*-k ez du editorialik, beraz, egunkari horren kasu sinatutako iritziak baino ezin izan dira zenbatu.

**9. grafikoa: Aztertutako egunetan, kasuak editorialean eta sinatutako iritzietan zenbat bider aipatu diren**



Iturria: norberak egindakoa

Lehenik eta behin, aipatu beharra dago *El Correo*-k ez duela iritzi sailean aukeratutako askatasun sexualen aurkako delituen salaketen inguruan iruzkin bat bera ere ez egin. Iritzi generoak politikari buruz aritzeko erabiltzen ditu gehien bat.


Beraz, argi ikusi daiteke *Deia* dela kasuak iritzi sailean gehien aipatu dituen, eta sinatutako iritziak izan direla nagusi. Hala ere, sailean agertutako egun kopurua oso eskasa da gertakariari egindako jarraipena zenbatekoa den kontuan izanik (27). Azkenik, *Berria*-k editorialik ez badu ere, kasuen inguruko sinatutako iritzia soilik behin argitaratu du, *Deia*-k baino lau bider gutxiago.



#### 4.1.2. KONTZEPTUEN ERABILERA

Ikerketaren beste helburuetariko bat askatasun sexualaren aurkako delituei buruz hitz egitean zein kontzeptu erabili ohi diren gehien zehaztea da. Horretarako, tituluetan zenbait kontzeptu gako zenbat bider errepikatzen diren zenbatu da.

**10. grafikoa: Kontzeptuak informazioen tituluetan zenbat bider errepikatzen diren**



Iturria: norberak egindakoa

Ikusi ahal denez, gehien erabiltzen den terminoa sexu erasoa da. *El Correo*-k kenduta, “bortxaketa” kontzeptua nahiko erabiltzen duela, beste biek gainerako terminoengandik oso alde nabarmena erakusten duten. Gainera, badirudi delitu sexualak ez dituztela eraso sexistekin lotzen.


Bestalde, nabarmentzekoa da balizko erasotzaileari edo balizko gertaerari erreferentzia egiteko “ustezko” hitza oso gutxi erabiltzen dela. *El Correo*-k 36 titulu ditu eta soilik bitan erabiltzen du terminoa; *Deia*-k 45 eta lau biderrez baino ez du erabiltzen; eta *Berria*-k 26 eta ez du baten ere ez aipatzen.

#### 4.1.3. BESTELAKO XEHETASUNAK

Azkenik, ikerketa kuantitatiboaren azken xede legez, askatasun sexualaren kontrako delituen salaketei buruz informatzeko genero eta titulu mota erabilienak zeintzuk diren; informazioak emakumezkoek edo gizonezkoek idazten dituzten, eta erasotzaile eta biktimen jatorriari aipamena egiten zaion aztertu da. Barrualdeko informazioak baino ez dira aztertu, generoaren eta sinaduren kasuan azala ikusita ezinezkoa delako datu horiek izatea; eta tituluen kasuan, normalean azalean eta barnealdean doazen titularrak antzerakoak direlako, eta ondorioz, errepikakorra izango litzatekeelako biak zenbatzea.

❖ GENERO ETA TITULU MOTA ERABILIAK

**11. grafikoa: Aukeratutako askatasun sexualaren aurkako delituen informazioak zein generoren bidez eman diren**




Iturria: norberak egindakoa

*Deia* egunkariaren kasuan aski nabarmena da informazio gehienak albiste era argitaratu dituela (informazio guztien %81,48). *El Correo* eta *Berria*-ren kasuetan gehienak albiste eran ere publikatu badira ere, erreportajeen kopuruarekiko aldea ez da hain deigarria: *El Correo*-k informazio guztien %57,14 albiste eran eta %42,85 erreportaje gisa; *Berria*-k %61,11 albiste moduan eta %38,9 erreportaje moldean. Halaber, guztien arteko batz bestekoa egitean, aldea agerikoagoa da: %66,57, albisteak; %33,34, erreportajeak.

Iritzi sailari dagozkion generoak aurreko puntuan aipatu dira, beraz, ez da horien inguruko ekarpen gehiagorik egingo.

**12. grafikoa: Barrualdeko informazio eta iritzietan erabilitako titulu motak**




Iturria: norberak egindakoa

Titulu moduetan dudarik gabe informatiboa da gehien erabili dena. Guztiek ateratzen diete oso alde handia beste hiru titulu motei. Gainera, *El Correo*-k iritzi sailean kasuen inguruko informazio argitaratu ez duenez zentzua du iritzian oinarritutako titulu motak ez erabiltzea. *Berria*-ren kasuan iritzi sailean informazio bakarra eman da, beraz, logikoa da ere iritzian oinarritutako titulu bakarra izatea.

❖ SINADURAK

Informazioak gizonezkoek ala emakumezkoek idazten dituzten jakitea da puntu honen helburua. Albiste, erreportaje eta sinatutako iritzien sinadurak zenbatu egin dira egunkari bakoitzean nork izenpetzen duen gehien jakiteko. Halaber, posible da ere informazio batzuk zehaztugabeak izatea, agentzietatik hartutakoak izateagatik edo sinadura ez eramateagatik.

**13. grafikoa: Aukeratutako kasuen inguruko informazioen izenpeak egunkari bakoitzean**



Iturria: norberak egindakoa


*El Correo* eta *Deia*-ren kasuetan gizonezkoak dira informazio gehienak sinatu dituztenak. Lehenengoari dagokionez, desberdintasuna oso nabaria da; bigarrenarenean, aldiz, gizonezkoen eta emakumezkoen arteko alde ez da oso handia, eta agentziek sinatutako informazio asko ditu. *Berria*-ren kasuan, parekoak dira gizonen eta emakumeen izenpeak.

❖ ERASOTZAILE ETA BIKTIMEN JATORRIAREN AIPAMENA

Azkenik, kasuetan erasotzaileen eta biktimen jatorria aipatzen den aztertu da parekotasuna dagoen jakiteko helburuarekin. Ez da zenbatu kasu bakoitzean zenbat bider esan den nongoak diren, baizik eta soilik behin aipatu duten ala ez. Hau da,

nahiz eta egunkari batek kasu baten jarraipena egitean hamar aldiz esan erasotzailea, adibidez, mexikarra dela, soilik behin zenbatu da.

**14. grafikoa: Aukeratutako kasuetan erasotzaile eta biktimen jatorriaren aipamena**



Iturria: norberak egindakoa

Grafikoak era argian erakusten du *Berria* egunkaria dela bai biktima, bai erasotzailearen herritartasuna gutxien aipatzen duena, soilik kasu baten egiten baitu. Bestalde, *El Correo* eta *Deia*-ren artean ez dago alde handirik: biktima edo erasotzailea tokiko izan denean soilik behin –*El Correo*-k birritan biktimen kasuan-, baina atzerrikoa izan denean hirutan aipatu dute. Gainera, atzeritarrak izan direnean askotan errepikatu da titulu elementuetan. Ondorioz, jatorria ez aipatzeko erabakia kasu gehienetan hartu badute ere, pentsatzekoa da hori erasotzailea edo biktimak tokikoak zirelako dela.

#### 4.2. Analisi kualitatiboa: Tratamendu informatiboa

Puntu honetan, atalka sailkatuta, aztertutako informazio elementu guztietan aurkitutako urrapenak zerrendatuko dira. Horiekin batera, printzipio etikoen haustura zergatik ematen den azalduko da, eta kasu askotan, segidan dauden elementuen urrapenen arrazoiak berdinak direnez, argibidean “berdin” adieraziko da. Halaber, eduki batzuei urrapen bat baino gehiago egotzi ahal zaie.

##### 4.2.1. EL CORREO

*El Correo* egunkarian guztira zortzi azal, 36 titulu eta horien elementuak, 28 sarrera, eta 24 argazki eta argazki-oin aztertu dira.

## ❖ AZALAK

### Informazioa eta iritzia bereizi

1. 2016/08/24 – Azala (zenbait eraso eta abusu sexualen salaketak Bilboko Aste Nagusian): “*La sucesión de denuncias por agresiones sexuales **enrarece** el verano vizcaíno*”.
  - Argibidea: “Enrarece” aditzondoa erabiltzean kazetariak bere iritzia ematen du, ez du titulu informatibo soil bat osatzen.
2. 2016/08/26 – Azala (zenbait eraso eta abusu sexualen salaketak Bilboko Aste Nagusian): “*Dos nuevos casos **enturbian más** la Aste Nagusia y polarizan el discurso de los políticos*”.
  - Argibidea: Berdin.
3. 2016/08/27 – Azala (zenbait eraso eta abusu sexualen salaketak Bilboko Aste Nagusian): “*La víctima, de 17 años, fue forzada por un joven cerca de Txurdinaga en el episodio más grave de la Aste Nagusia*”.
  - Argibidea: Berdin.

### Errefusatu sentsazionalismoa

4. 2016/07/12 – Azala (bost pertsonen arteko bortxaketa salaketa San Fermin jaietan): “*La fiesta violada*”.
  - Argibidea: Jaiak, berez, ezin dira bortxatuak izan. Horrelako titularrak ikusgarritasuna eta morboa bilatzen ditu.

### Errespetatu errugabetasun presuntzioa

Azaletan ez da printzipio honen urraketarik aurkitu.

### Gertakaria ulertzeko beharrezkoa ez den informazioa ez eman

5. 2016/08/22 – Azala (bortxaketa salaketa Sopelako aparkaleku baten): “*La Ertzaintza investiga una agresión sexual a una **‘au pair’ británica** en Sopela*”.
  - Argibidea: Gertakaria ulertzeko ez da zertan aipatu behar *au pair*-a dela.

### Iturriak era egokian identifikatu

Azaletan ez da printzipio honen urraketarik aurkitu.

## ❖ TITULU ETA TITULU ELEMENTUAK

### Informazioa eta iritzia bereizi

1. 2016/08/24 – 20. orrialdea, titulua (zenbait eraso sexualen salaketak Bilboko Aste Nagusian): “*La detención de dos hombres por abusar de tres chicas **vuelve a sacudir** Aste Nagusia*”.
  - Argibidea: Berdin.

2. 2016/08/27 – 2. orrialdea, titulua (zenbait eraso eta abusu sexualen salaketak Bilboko Aste Nagusian): *“La presunta violación a una menor **dispara la indignación**”*.

- Argibidea: Berdin.

#### Errefusatu sentsazionalismoa

3. 2016/07/16 - 16. orrialdea, titulua (bost pertsonen arteko bortxaketa salatzen du neska batek San Fermin jaietan): *“**«Me tiraron al suelo y me taparon la boca mientras me forzaban»**”*

- Argibidea: Aipu hori informazioaren titulua da. Horrelako adierazpen bat tituluaren ipintzeak morboa sorrarazten du.

4. 2016/07/27 – 6. orrialdea, titulua (Aixerrotako *paellas* jaietan sexu eraso baten salaketa): *“**Getxo se echa hoy a la calle para repudiar la violencia machista**”*.

- Argibidea: Gertaera exageratu egiten da. Informazioa puztu egiten da.

5. 2016/08/24 – 20. Orrialdea, titulua (zenbait eraso eta abusu sexualen salaketak Bilboko Aste Nagusian): *“**La detención de dos hombres por abusar de tres chicas vuelve a sacudir Aste Nagusia**”*.

- Argibidea: Berdin.

6. 2016/08/24 – 20. orrialdea, azpitulua (zenbait eraso eta abusu sexualen salaketak Bilboko Aste Nagusian): *“**Primero se dirigieron de forma obscena a las víctimas y luego reaccionaron de manera agresiva a su rechazo con tocamientos**”*.

- Argibidea: Morboa sorrarazten dituzten xehetasun anitz aipatzen dira.

#### Errespetatu errugabetasun presuntzioa

7. 2016/07/09 - 20.orrialdea, azpitulua (bost pertsonen arteko bortxaketa salatzen du neska batek San Fermin jaietan): *“**Otros tres de los acusados, que grabaron la agresión, tienen antecedentes delictivos**”*.

- Argibidea: Kazetariak baieztatu egiten du, epaiketa egon aurretik, akusatuek ustezko bortxaketa grabatu zutela.

8. 2016/07/10 – 26. orrialdea, azpitulua (bost pertsonen arteko bortxaketa salatzen du neska batek San Fermin jaietan): *“**En el video de la violación que realizaron los propios sospechosos «se aprecia la participación colectiva de todos ellos», indica el magistrado**”*.

- Argibidea: Epaiketa egon aurretik, kazetariak baieztatu egiten du berriro ere bortxaketa, eta bideoa eurek grabatu zutela.

9. 2016/07/12 – 4. orrialdea, titulua (sexu eraso baten salaketa BBK Live jaialdian): *“Detenido un joven de 19 años por abuso sexual a una chica en el BBK Live”*
  - Argibidea: Sexu erasoagatik akusatua dagoela esan beharko luke.
10. 2016/08/24 – 20. orrialdea, azpitulua (zenbait eraso eta abusu sexualen salaketak Bilboko Aste Nagusian): *“Primero se dirigieron de forma obscena a las víctimas y luego reaccionaron de manera agresiva a su rechazo con tocamientos”*.
  - Argibidea: Informazioa argitaratu zen momentuan oraindik ez zen epaiketarik egon, beraz, kazetariak ezin du baieztatu hori horrela gertatu zenik.
11. 2016/08/30 – 4. orrialde, azpitulua (zenbait eraso eta abusu sexualen salaketak Bilboko Aste Nagusian): *“Una mujer fue atacada en la calle Ronda el viernes y otras dos el domingo en la plaza Circular y en El Arenal, ésta por un joven de 28 años detenido por la Ertzaintza cuando huía”*.
  - Argibidea: Informazio argitaratu zen momentuan oraindik ez zen epaiketarik egon, beraz, kazetariak ezin du baieztatu erasotzailea atxilotutako gizona izan zenik.

#### Gertakaria ulertzeko beharrezkoa ez den informazioa ez eman

12. 2016/07/11 – 15. orrialdea, azpitulua (bost pertsonen arteko bortxaketa salatzen du neska batek San Fermin jaietan): *“La Policía Nacional busca al sospechoso de la agresión a una mujer francesa de 25 años, la noche del sábado en la plaza del Castillo”*.
  - Argibidea: Frantsesa dela esateak ez du inolako garrantzirik.
13. 2016/08/22 – 19. orrialdea, titulua (bortxaketa salaketa Sopelako aparkaleku baten): *“Agreden sexualmente a una ‘au pair’ británica en el parking de Larrabasterra”*.
  - Argibidea: Berdin.
14. 2016/08/22 – 19. orrialdea, azpitulua (bortxaketa salaketa Sopelako aparkaleku baten): *“Según el relato de los testigos, un grupo de árabes que se dedican al surf la atendió y llamó a emergencias”*.
  - Argibidea: Berdin.

#### Iturriak era egokian identifikatu

15. 2016/07/12 – 66. orrialdea, azpitulua (bost pertsonen arteko bortxaketa salatzen du neska batek San Fermin jaietan): *“Antes, en San Fermín las mujeres éramos parte de un lote, juntos al beber y el disfrutar. Ahora se ha perdido el miedo a denunciar». De momento, doce hombres han sido detenidos”*.
  - Argibidea: Ez da aipatzen aipua nork esan duen.

❖ SARRERAK

Informazioa eta iritzia bereizi

1. 2016/07/08 - (bost pertsonen arteko bortxaketa salaketa San Fermin jaietan):  
“*Con ese hecho se **empaño** el Día Grande de las fiestas de San Fermín*”).  
- Argibidea: Kazetariak bere balorazioa egiten du.
2. 2016/07/12 – 66. orrialdea (bost pertsonen arteko bortxaketa salaketa San Fermin jaietan): “*En los últimos años, se ha sumado otro balance que **ensombrece sin remedio** la fiesta: no pasa fecha en el calendario sin que se sume una nueva agresión o un nuevo abuso sexual, en una acumulación constante que ha dejado al descubierto **la cara más abyecta** de la celebración*”.  
- Argibidea: Berdin.
3. 2016/07/12 – 4. orrialdea (BBK Live jaialdian sexu abusu baten salaketa): “*Según algunos testigos, el agresor, que se encontraba afectado por la ingesta de **alcohol**, realizó tocamientos a una muchacha que estaba también entre el público*”.  
- Argibidea: Bere iritzia da ustezko erasotzailea mozkortuta zegoela.
4. 2016/07/13 – 5. orrialdea (BBK Live jaialdian sexu abusu baten salaketa): “*El Ayuntamiento de Bilbao **condenó ayer rotundamente** la agresión sexual sufrida por un joven en el festival BBK Live del pasado fin de semana [...]*”.  
- Argibidea: Kazetariak bere iritzia modu argian islatzen du.  
-
5. 2016/08/30 – 5. orrialdea (eraso sexual baten salaketa Durangon) – “***La violencia machista no debe quedar impune***”.  
- Argibidea: Bere iritzia era argian azaltzeaz gain, eraso sexualak biolentzia matxistaren barne sartzen dituela ere adierazten du.

Errefusatu sentsazionalismoa

6. 2016/07/12 – 66. orrialdea (bost pertsonen arteko bortxaketa salaketa San Fermin jaietan): “*En los últimos años, se ha sumado otro balance que **ensombrece sin remedio** la fiesta: no pasa fecha en el calendario sin que se sume una nueva agresión o un nuevo abuso sexual, **en una acumulación constante** que ha dejado al descubierto **la cara más abyecta** de la celebración*”.  
- Argibidea: Informazioa puzten da morboa lortzeko.
7. 2016/07/12 – 4. orrialdea (BBK Live jaialdian sexu abusu baten salaketa): “*Según algunos testigos, el agresor, que se encontraba afectado por la ingesta de alcohol, realizó tocamientos a una muchacha que estaba también entre el público*”.  
- Argibidea: Xehetasun morboosoak azaltzen dira erakargarritasuna lortzeko.



8. 2016/07/12 – 4. orrialdea (BBK Live jaialdian sexu abusu baten salaketa): “*El joven luego arrestado le metió la mano por debajo de la ropa interior y le tocó el pecho*”
- Argibidea: Berdin.

#### Errespetatu errugabetasun presuntzioa

9. 2016/07/12 – 4. orrialdea (BBK Live jaialdian sexu abusu baten salaketa): “*Según algunos testigos, el agresor, que se encontraba afectado por la ingesta de alcohol, realizó tocamientos a una muchacha que estaba también entre el público*”.
- Argibidea: Ez da ustezko hitza erabiltzen. Baieztatu egiten da atxilotutako pertsona erasotzailea dela.

10. 2016/07/12 – 4. orrialdea (BBK Live jaialdian sexu abusu baten salaketa): “*El joven luego arrestado le metió la mano por debajo de la ropa interior y le tocó el pecho*”
- Argibidea: Berdin.

#### Gertakaria ulertzeko beharrezkoa ez den informazioa ez eman

11. 2016/07/09 – 20. orrialdea (bost pertsonen arteko bortxaketa salaketa San Fermin jaietan): “*Los cinco son originarios de Andalucía y niegan la acusación de la joven, vecina de Madrid*”.
- Argibidea: Nongoak diren aipatzeak ez du garrantzirik.
12. 2016/07/11 – 15. orrialdea (bost pertsonen arteko bortxaketa salaketa San Fermin jaietan): “*La víctima es una joven francesa de 25 años*”.
- Argibidea: Bere nazionalitatea aipatzeak ez du gertakaria aldatzen.
13. 2016/07/12 – 4. orrialdea (BBK Live jaialdian sexu abusu baten salaketa): “*Un joven australiano de 19 años fue detenido por la Policía Municipal de Bilbao la noche de pasado sábado en el monte Kobetas [...]*”.
- Argibidea: Berdin.
14. 2016/08/13 – 14. orrialdea (eraso sexual baten saiakeraren salaketa Donostian): “*[...] la Corporación expresó su repulsa por el intento de agresión sexual sufrido por una joven irlandesa la madrugada del pasado jueves*”.
- Argibidea: Berdin.
15. 2016/08/23 – 23. orrialdea (bortxaketa salaketa Sopelako aparkaleku baten): “*El testimonio de la chica –de unos 25 años y que se encuentra trabajando de ‘au pair’, conviviendo con una familia y cuidando a niños- está lleno de «lagunas» [...]*”
- Argibidea: Zertan aritzen den ez du inolako garrantzirik. Gainera, “esta lleno de lagunas” esatea ez da beharrezkoa, sinesgarritasuna kentzek baitzaio. Hau da, kasu bakarra zeinetan duda-mudan jartzen da biktimaren testigantza. Pentsatzekoa da hori gertatzen dela atzerritarra delako.

### Iturriak era egokian identifikatu

16. 2016/07/10 – 26. Orrialdea (bost pertsonen arteko bortxaketa salaketa San Fermin jaietan): *“Uno de los acusados es Guardia Civil, a quien el cuerpo le «aplicará el régimen disciplinario interno», según indican fuentes oficiales”*
  - Argibidea: Formula horren erabilera ez da egokia. Iturria ez da modu egokian identifikatzen.
17. 2016/07/12 – 4. orrialdea (BBK Live jaialdian sexu abusu baten salaketa): *“Según algunos testigos, el agresor [...]”*
  - Argibidea: Iturria ez da modu egokian identifikatzen.
18. 2016/07/26 – 2. orrialdea (Aixerrotako *paellas* jaietan bortxaketa salaketa): *“La víctima de unos treinta años, explicó a los agentes que la atendieron que había sido asaltada antes de medianoche por un par de individuos [...]”*
  - Argibidea: Esaldiak jarraitzen du baina ez da azaltzen nor esan duen salaketa ipini duenak hori esan duenik. Paragrafoan amaierara arte irakurri arren, iturria nor den argitu gabe jarraitzen du.
19. 2016/08/27 – 2. orrialdea (zenbait eraso eta abusu sexualen salaketak Bilboko Aste Nagusian): *“La chica y el sospechoso se habrían separado de sus respectivos grupos de amigos y habrían salido del recinto festivo para dar una vuelta. según ha podido saber este periódico de fuentes cercanas a la investigación”*.
  - Argibidea: Iturria ez da modu egokian identifikatzen.
20. 2016/08/27 – 2. orrialdea (zenbait eraso eta abusu sexualen salaketak Bilboko Aste Nagusian): *“La hipótesis con la que se trabaja es que, aunque ella se negó a mantener relaciones sexuales, el individuo la habría forzado, según apuntan las mismas fuentes”*.
  - Argibidea: Berdin.
21. 2016/08/23 – 23. orrialdea (bortxaketa salaketa Sopelako aparkaleku baten): *“[...] ha denunciado haber sido víctima de una agresión sexual durante la madrugada del sábado al domingo, según ha podido saber EL CORREO”*
  - Argibidea: Berdin.

❖ ARGAZKI ETA ARGAZKI-OINAK
-----------------------------

### Argazkien tratamendu egokia bermatu

1. 2016/07/11 – 15. orrialdea, argazki oina (bost pertsonen arteko bortxaketa salatzen du neska batek San Fermin jaietan): *“La Policía foral detiene a un sospechoso, ajeno a esta información”*.
  - Argibidea: Nahiz eta argazki oinean argitu, informazioarekin zerikusirik ez duen pertsona baten atxiloketa agertzea ez da egokia, lehen bistan ustezko eraso sexuarekin zerikusia duela pentsatu ahal duelako irakurleak.

2. 2016/08/24 – Azala (zenbait eraso eta abusu sexualen salaketak Bilboko Aste Nagusian): “*El Rey Juan Carlos se estrena en la Aste Nagusia*”.
  - Argibidea: Desegokia da sexu erasoengatik titular erakargarri bat egitea, eta ondoan erregea barre egiten eta ondo pasatzen agertzea.



#### 4.2.2. DEIA

Deia egunkarian guztira 15 azal, 45 titulu eta horien elementuak, 30 sarrera, eta 21 argazki eta argazki-oin aztertu dira.

### ❖ AZALAK

#### Informazioa eta iritzia bereizi

1. 2016/07/11 – Azala (bost pertsonen arteko bortxaketa salaketa San Fermin jaietan): “*Cuatro denuncias más por agresiones sexuales enturbian los Sanfermines*”
  - Argibidea: Kazetariak bere balorazioa egiten du.
2. 2016/08/23 – Azala (zenbait eraso eta abusu sexualen salaketak Bilboko Aste Nagusia): “*Protesta contundente ante un ataque sexista en Bilbao*”
  - Argibidea: Berdin.

#### Errefusatu sentsazionalismoa

Ez da printzipio honen urraketarik aurkitu

#### Errespetatu errugabetasun presuntzioa

Ez da printzipio honen urraketarik aurkitu

Gertakaria ulertzeko beharrezkoa ez den informazioa ez eman

Ez da printzipio honen urraketarik aurkitu

Iturriak era egokian identifikatu

Ez da honen urraketarik aurkitu

❖ TITULU ETA TITULU ELEMENTUAK

Informazioa eta iritzia bereizi

1. 2016/08/27 – 2. orrialdea, titulua (zenbait eraso eta abusu sexualen salaketak Bilboko Aste Nagusia): “*Una violación **agrava** los ataques sexuales en fiestas*”.
  - Argibidea: Kazetariak bere iritzia ematen du “agrava” hitzarekin.

Errefusatu sentsazionalismoa

2. 2016/07/09 – 23. orrialdea, azpitulua (bost pertsonen arteko bortxaketa salaketa San Fermin jaietan): “*Alguno de los jóvenes, de entre 23 y 27 años, **pudo haber grabado la agresión con su móvil***”.
  - Argibidea: Xehetasun morbosoa bat eskaintzen da erakargarritasuna lortzeko.

Errespetatu errugabetasun presuntzioa

3. 2016/07/10 – 21. orrialdea, titulua (bost pertsonen arteko bortxaketa salaketa San Fermin jaietan): “*Prisión para los cinco detenidos **por violar** a una joven en Iruñea*”.
  - Argibidea: Epaiketa egon aurretik baieztatu egiten du eurek bortxatu dutela neska.
4. 2016/08/12 – 17. orrialdea, azpitulua (eraso sexual baten salaketa Donostian): “*El varón **intentó forzar** a una joven inglesa muy cerca del Ayuntamiento*”.
  - Argibidea: Baieztatu egiten da, epaiketa egon aurretik, atxilotutako pertsona erasotzailea dela.
5. 2016/08/30 – 7. orrialdea, tartekiaren titulua (zenbait eraso eta abusu sexualen salaketak Bilboko Aste Nagusia): “*Detenido otro agresor sexual*”.
  - Argibidea: Berdin.
6. 2016/08/30 – 7. orrialdea, azpitulua (zenbait eraso eta abusu sexualen salaketak Bilboko Aste Nagusia): “*El atacante fue **arrestado** de madrugada en la plaza Circular tras seguirle un testigo del hecho*”.
  - Argibidea: Berdin.

### Gertakaria ulertzeko beharrezkoa ez den informazioa ez eman

7. 2016/07/12 – 14. orrialdea, titulua (bost pertsonen arteko bortxaketa salaketa San Fermin jaietan): “*Una **joven navarra** denuncia una nueva agresión sexual durante los Sanfermines*”
  - Argibidea: Nongoa den esateak ez du eraginik informazioan.
8. 2016/08/12 – 17. orrialdea, azpititulua (eraso sexual baten salaketa Donostian): “*El varón intentó forzar a **una joven inglesa** muy cerca del Ayuntamiento*”.
  - Argibidea: Berdin.
9. 2016/08/23 – 27. Orrialdea, titulua (eraso sexual baten salaketa Donostian): “*Investigan la posible agresión sexual a **una joven extranjera** ocurrida en Sopela*”.
  - Argibidea: Berdin, eta honetan ere, erasoak gertatu dela dudak ipintzen den kasu bakarra da.

### Iturriak era egokian identifikatu

10. 2016/07/09 – 23. orrialdea, azpititulua (bost pertsonen arteko bortxaketa salaketa San Fermin jaietan): “***Alguno de los jóvenes**, de entre 23 y 27 años, **pudo haber grabado la agresión con su móvil***”.
  - Argibidea: Nork esaten du hori?

❖ SARRERAK
------------

### Informazioa eta iritzia bereizi

1. 2016/07/10 – 21. orrialdea (bost pertsonen arteko bortxaketa salaketa San Fermin jaietan): “[...] *grabaron la **brutal** agresión [...] continuaron la noche y aún **tuvieron estómago para aguantar hasta la hora del encierro***”.
  - Argibidea: Kazetariak bere balorazioak era argian egiten ditu.
